**Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, que Regula el Derecho a la Educación**

BOE, nº 159, de 4 de julio

**PREÁMBULO**

La extensión de la educación básica, hasta alcanzar a todos y cada uno de los ciudadanos, constituye, sin duda, un hito histórico en el progreso de las sociedades modernas.

En efecto, el desarrollo de la educación, fundamento del progreso de la ciencia y de la técnica, es condición de bienestar social y prosperidad material, y soporte de las libertades individuales en las sociedades democráticas.

No es de extrañar, por ello, que el derecho a la educación se haya ido configurando progresivamente como un derecho básico, y que los estados hayan asumido su provisión como un servicio público prioritario.

Por las insuficiencias de su desarrollo económico y los avatares de su desarrollo político, en diversas épocas, el Estado hizo dejación de sus responsabilidades en este ámbito, abandonándolas en manos de particulares o de instituciones privadas, en aras del llamado principio de subsidiariedad.

Así hasta tiempos recientes, la educación fue más privilegio de pocos que derecho de todos.

En el último cuarto de siglo y tras un sostenido retroceso de la enseñanza pública, las necesidades del desarrollo económico y las transformaciones sociales inducidas por éste elevaron de modo considerable la demanda social de educación.

El incremento consiguiente fue atendido, primordialmente por la oferta pública con la consiguiente alteración de las proporciones hasta entonces prevalentes entre el sector público y el privado.

De este modo, acabaron de configurarse los contornos característicos del actual sistema educativo en España: Un sistema de carácter mixto o dual, con un componente público mayoritario y uno privado de magnitud considerable.

La Ley General de Educación de 1970, estableció la obligatoriedad y gratuidad de una educación básica unificada.

Concebía ésta como servicio público, y responsabilizaba prioritariamente al Estado de su provisión.

Ello no obstante, reconociendo y consagrando el carácter mixto de nuestro sistema educativo, abría la posibilidad de que centros no estatales pudieran participar en la oferta de puestos escolares gratuitos en los niveles obligatorios, obteniendo en contrapartida un apoyo económico del Estado.

**Uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzekoa**

EAO, 159. zk., uztailaren 4koa

**ATARIKOA**

Duda-mudarik gabe, oinarrizko hezkuntza herritar guzti-guztiei begira hedatzea gertaera garrantzitsua da gizarte modernoen aurrerapenerako.

Zinez, hezkuntzaren garapena da zientziak eta teknikak aurrera egiteko oinarria; esangura horretan, hezkuntzaren garapena, gizarte-ongizatearen eta onura materialaren baldintza izateaz gain, banakako askatasunen euskarri ere bada, gizarte demokratikoetan.

Hortaz, ez da harritzekoa, hezkuntzarako eskubidea ezari- -ezarian oinarrizko eskubide gisa eratzen joan izana, eta estatuek hezkuntzaren eskaintza lehentasuneko zerbitzu publiko gisa hartzea.

Garapen ekonomikoaren eskasia eta bilakaera politikoaren gorabeherak zirela eta, garai batzuetan, estatuak bertan behera utzi zituen gai honen inguruan bere gain hartu beharreko erantzukizunak. Horrenbestez, estatuak erantzukizun horiek subjektu edo erakunde pribatuen esku utzi zituen, subsidiaritate- printzipioaren mesederako.

Bada, orain dela gutxi arte, gutxi batzuen pribilegioa izan da hezkuntza, eta ez guztion eskubidea.

Irakaskuntza publikoak urte askotan atzerapena izan eta gero, azken mende laurdenean, hezkuntzaren gizarte-eskaria gehitu zen, garapen ekonomikoaren beharrizanek eta garapen ekonomikoaren ondoriozko gizarte-aldaketek eraginda.

Hezkuntza-eskaria gehitzeari aurre egin zitzaion, batik bat, eskaintza publikoarekin. Ondorenez, aldatu egin ziren ordu arteko proportzio nagusiak, sektore publikoaren eta sektore pribatuaren artean.

Horrela, Espainian, eratuta geratu ziren gaur egungo hezkuntza-sistemaren ezaugarri nagusiak. Horren ondorio da izaera mistoa edo bikoiztua duen sistema; sistema hori, gehienbat publikoa izan arren, zati handi batean pribatua ere bada.

Hezkuntzari buruzko 1970eko Lege Orokorrak ezarri zuen oinarrizko hezkuntza bateratuaren derrigorrezkotasuna eta doakotasuna.

Lege horren arabera, hezkuntza zerbitzu publikoa zen, eta estatua arduratu behar zen batez ere hezkuntza hori eskaintzeaz.

Hori gorabehera, legeak Espainiako hezkuntza-sistemaren izaera mistoa aitortu eta sendotu zuen. Ildo horretatik, legeak aukera eman zien estatukoak ez ziren zentroei, derrigorrezko mailetan doako eskola-postuen eskaintzan parte hartzeko, estatuaren laguntza ekonomikoaren truk.

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

A pesar de que el proyectado régimen de conciertos nunca fue objeto del necesario desarrollo reglamentario, diversas disposiciones fueron regulando en años sucesivos la concesión de subvenciones a centros docentes privados, en cuantía rápidamente creciente, que contrastaba con el ritmo mucho más parsimonioso de incremento de las inversiones públicas.

Egia esan, aurreikusitako itunen araubide horrek sekula ez zuen izan beharrezko garapenik erregelamendu bidez. Alabaina, urteroko xedapen batzuek irakaskuntza-zentro pribatuetarako diru-laguntzak arautu zituzten. Urtetik urtera, azkar igo ziren diru-laguntza horiek. Aitzitik, inbertsio publikoak egiteko erritmoa askoz ere motelagoa izan zen.

En ausencia de la adecuada normativa, lo que había nacido como provisional se perpetuó, dando lugar a una situación irregular, falta del exigible control, sujeta a incertidumbre y arbitrariedad, y en ocasiones sin observancia de las propias disposiciones legales que la regulaban.

Arautegi egokiaren faltan, behin- -behineko izaerarekin sortutako egoera luzatu zen. Horrek egoera irregularra ekarri zuen, behar besteko kontrolik ez zegoelako, zalantzen eta nahierakeriaren mende jardun behar zelako, eta sarritan diru-laguntzak arautzeko lege-xedapenak ez zirelako kontuan hartzen.

A pesar de ello, la cobertura con fondos públicos de la enseñanza obligatoria no cesó de extenderse, hasta abarcar la práctica totalidad de la misma, pese al estancamiento relativo del sector público.

Hori gorabehera, diru publikoen laguntza etenik gabe hedatu zen derrigorrezko irakaskuntzara, eta laguntza horrek bere baitara bildu zuen ia-ia derrigorrezko irakaskuntza osoa. Hala eta guztiz ere, sektore publikoa nolabait geldi zegoen.

No es de extrañar que ante tan confusa e insatisfactoria evolución fueran consolidándose opciones educativas alternativas, cuando no contrapuestas, que prolongaban de hecho las fracturas ideológicas que secularmente habían escindido a la sociedad española en torno a la educación.

Ez da harritzekoa, bilakaera nahasi eta eskas horren ondorioz, ordezko hezkuntza-aukerak sendotzea, bai eta elkarren aurkako hezkuntza-aukerak ere. Hurrean ere, hezkuntza-aukera horiek luzatu egin zituzten ideologia-hausturak, hots, hezkuntzari dagokionez mendez mende Espainiako gizartea banandu zutenak.

Este trasfondo histórico explica la complejidad de elementos que configuran el marco educativo establecido por la Constitución Española, un marco de compromiso y concordia que, al tiempo que reconoce implícitamente el sistema mixto heredado, proporciona el espacio normativo integrador en el que pueden convivir las diversas opciones educativas.

Oinarri historiko horrek azaltzen du Espainiako Konstituzioak ezarritako hezkuntza-esparruaren osagai eratzaileak korapilatsuak izatea. Hartara, konpromiso eta adostasuneko esparru horrek, aurretiaz ezarrita zegoen sistema mistoa modu inplizituan aitortzeaz gain, berarekin ekarri du hezkuntza-aukera desberdinek tokia izatea esparru arau- -emaile eta oro-hartzaile batean.

Así, tras el derecho a la educación (artículo 27.1 a) se afirma la libertad de enseñanza (artículo 27.1 b); al lado del derecho de los padres a elegir la formación religiosa y moral que estimen más oportuna para sus hijos (artículo 27.3), figuran el derecho a la libertad de cátedra (artículo 20.1) y la libertad de conciencia (artículos 14, 16, 20 y 23).

Bada, hezkuntzarako eskubidea aitortu ondoren (27.1.a artikulua), irakaskuntza-askatasuna baieztatu da (27.1.b artikulua); eta gurasoek euren seme-alabentzat egokien jotzen duten heziketa erlijioso eta morala aukeratzeko eskubidearekin batera (27.3 artikulua), arautu dira katedra-askatasunerako eskubidea (20.1 artikulua) eta kontzientzia-askatasuna (14, 16, 20 eta 23. artikuluak).

Y si se garantiza la libertad de creación de centros docentes (artículo 27.6), también se responsabiliza a los poderes públicos de una programación general de la enseñanza (artículo 27.5) orientada a asegurar un puesto escolar a todos los ciudadanos.

Bestalde, irakaskuntza-zentroak sortzeko askatasuna bermatu bada ere (27.6 artikulua), botere publikoak dira irakaskuntzaren programazio orokorraren erantzule (27.5 artikulua), herritar guztiei eskola- postua ziurtatzeko.

Finalmente, la ayuda a los centros docentes (artículo 27.9) tiene que compaginarse con la intervención de profesores, padres y alumnos en el control y gestión de esos centros sostenidos con fondos públicos (artículo 27.7).

Amaitzeko, irakaskuntza- zentroei eman beharreko laguntza (27.9 artikulua) bat etorri behar da irakasleek, gurasoek eta ikasleek diru publikoekin eutsitako irakaskuntza- zentroen kontrol eta kudeaketan izan beharreko partaidetzarekin (27.7 artikulua).

Corresponde al legislador el desarrollo de estos preceptos, de modo que resulten modelados equilibradamente en su ulterior desarrollo normativo.

Legegileari dagokio manu horiek garatzea, gerogarreneko arautegi-garatzean manu horiek modu orekatsuan molda daitezen.

Sin embargo, el desarrollo que del artículo 27 de la Constitución, hizo la Ley Orgánica del Estatuto de

Edonola ere, zatikakoa eta Konstituzioaren espiritutik aldendutakoa izan zen Konstituzioaren 27.

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

Centros Escolares, ha supuesto un desarrollo parcial y escasamente fiel al espíritu constitucional, al soslayar, por un lado, aspectos capitales de la regulación constitucional de la enseñanza como son los relativos a la ayuda de los poderes públicos a los centros privados y a la programación general de la enseñanza y, por otro, al privilegiar desequilibradamente los derechos del titular del centro privado sobre los de la comunidad escolar, supeditando la libertad de cátedra al ideario e interpretando restrictivamente el derecho de padres, profesores y alumnos a la intervención en la gestión y control de los centros sostenidos con fondos públicos.

artikuluaren inguruan Eskola Zentroen Estatutuari buruzko Lege Organikoak egindako garapena. Batetik, lege organiko horrek ez zituen aintzat hartu Konstituzioak irakaskuntzari buruz egindako arauketaren alde nagusiak, hala nola, botere publikoek zentro pribatuei eman beharreko laguntzaren ingurukoak eta irakaskuntzaren programazio orokorraren ingurukoak. Bestetik, lege organiko horrek modu desorekatuan lehenetsi zituen zentro pribatuko titularraren eskubideak, eskola-erkidegoaren eskubideen gainetik. Modu horretara, katedra-askatasuna ideien mende jarri zen, eta modu murrizgarrian interpretatu zen guraso, irakasle eta ikasleek duten eskubidea, diru publikoekin eutsitako zentroen kudeaketan eta kontrolean parte hartzeko.

Se impone, pues, una nueva norma que desarrolle cabal y armónicamente los principios que, en materia de educación, contiene la Constitución Española, respetando tanto su tenor literal como el espíritu que presidió su redacción, y que garantice al mismo tiempo el pluralismo educativo y la equidad.

Hori guztia dela eta, arau berria ezarri da, Espainiako Konstituzioak hezkuntza- arloan jasotako printzipioak zentzuz eta harmoniaz garatzeko, printzipio horien hitzez-hitzezkotasuna nahiz horiek idazteko espiritua errespetatuta. Halaber, arau berriak hezkuntza- aniztasuna eta ekitatea bermatu behar ditu.

A satisfacer esta necesidad se orienta la Ley Orgánica reguladora del Derecho a la Educación.

Beharrizan hori gainditzea da, hain justu ere, Hezkuntzarako Eskubideari buruzko Lege Organikoaren xedea.

En estos principios debe inspirarse el tratamiento de la libertad de enseñanza, que ha de entenderse en un sentido amplio y no restrictivo, como el concepto que abarca todo el conjunto de libertades y derechos en el terreno de la educación.

Printzipio horietan oinarritu behar da irakaskuntza-askatasunaren tratamendua. Arean ere, tratamendu hori esangura zabalean ulertu behar da, eta ez esangura murrizgarrian. Bestela esanda, ulertu behar da irakaskuntza- -askatasuna dela hezkuntza-esparruan dauden askatasun eta eskubideen multzoa.

Incluye, sin duda, la libertad de crear centros docentes y de dotarlos de un carácter o proyecto educativo propio, que se halla recogida y amparada en el Capítulo III del Título I.

Ildo horretatik, inolako zalantzarik gabe, irakaskuntza-askatasunera biltzen da irakaskuntza-zentroak sortu eta horietan hezkuntza-izaera edo -egitasmo propioa ezartzeko askatasuna; izatez, askatasun hori I. tituluko III. kapituluan jaso eta babestu da.

Incluye, asimismo, la capacidad de los padres de poder elegir para sus hijos centros docentes distintos de los creados por los poderes públicos, así como la formación religiosa y moral que esté de acuerdo con sus convicciones, tal como se recoge en el artículo 4.

Era berean, irakaskuntza-askatasunera biltzen da gurasoek duten ahalmena, euren seme-alabentzat botere publikoek sortu gabeko irakaskuntza-zentroak aukeratzeko, bai eta, 4. artikuluan jasotakoaren arabera, beraien uste sendoekin bat datorren heziketa erlijioso eta morala aukeratzeko ere.

Pero la libertad de enseñanza se extiende también a los propios profesores, cuya libertad de cátedra está amparada por la Constitución por cuanto constituye principio básico de toda sociedad democrática en el campo de la educación.

Bestalde, irakaskuntza- askatasuna irakasleei ere hedatzen zaie, Konstituzioak irakasleen katedra-askatasuna babestu duelako; izan ere, gizarte demokratiko guztietan hezkuntza- esparruan oinarrizko printzipioa da hori.

Y abarca muy fundamentalmente, a los propios alumnos, respecto de los cuales la protección de la libertad de conciencia constituye un principio irrenunciable que no puede supeditarse a ningún otro.

Orobat, irakaskuntza-askatasunera biltzen dira, bereziki, ikasleak. Ikasleei dagokienez, kontzientzia-askatasunaren babesari ezin zaio ukorik egin, eta babes hori ezin jar daiteke beste edozein printzipioren mende.

Tras la definición de los grandes fines de la actividad educativa y de los derechos y libertades de todos y cada uno de los integrantes de la comunidad escolar, la Ley clasifica los centros docentes atendiendo

Behin hezkuntza-jardueraren xede nagusiak eta eskola-erkidegoa osatzen duten guztien eskubide eta askatasunak zehaztuta, legeak irakaskuntza-zentroak sailkatu ditu. Horretarako, batera kontuan


© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

conjuntamente a los criterios de titularidad jurídica y origen y carácter de los recursos que aseguran su sostenimiento.

Distingue así los centros privados que funcionan en régimen de mercado, mediante precio, y los centros sostenidos con fondos públicos, y dentro de éstos los privados concertados y los de titularidad pública.

A la red dual integrada por estos dos últimos tipos de centros encomienda la ley la provisión de la educación obligatoria en régimen de gratuidad.

La regulación de ésta se asienta en dos principios de importancia capital en el sistema educativo diseñado por la Constitución, programación y participación, cuyo juego hace posible la cohonestación equilibrada del derecho a la educación y de la libertad de enseñanza.

Al Estado y a las Comunidades Autónomas, por medio de la programación general de la enseñanza, corresponde asegurar la cobertura de las necesidades educativas, proporcionando una oferta adecuada de puestos escolares, dignificando una enseñanza pública insuficientemente atendida durante muchos años y promoviendo la igualdad de oportunidades.

El mecanismo de la programación general de la enseñanza, que debe permitir la racionalización del uso de los recursos públicos destinados a educación, se halla regulado en el Título II.

Tal programación debe asegurar simultáneamente el derecho a la educación y la posibilidad de escoger centro docente dentro de la oferta de puestos escolares gratuitos, pues tal libertad no existe verdaderamente si no está asegurado aquel derecho para todos.

El Título III se ocupa de los órganos de gobierno de los centros públicos, y el Título IV hace lo propio con los concertados.

La estructura y el funcionamiento de unos y otros se inspiran, en coherencia con lo prescrito por el artículo 27.7 de la Constitución en una concepción participativa de la actividad escolar.

En uno y otro caso, y con las peculiaridades que su distinta naturaleza demandan, la participación de la comunidad escolar se vehicula a través del consejo escolar del centro.

Además de constituir medio para el control y gestión de fondos públicos, la participación es mecanismo idóneo para atender adecuadamente los derechos y libertades de los padres, los profesores y, en definitiva, los alumnos, respetando siempre los derechos del titular.

La participación amplía, además, la libertad de enseñanza, al prolongar el acto de elegir centro en el proceso activo de dar vida a un auténtico proyecto educativo y asegurar su permanencia.

hartu ditu, titulartasun juridikoari buruzko irizpideak, eta irakaskuntza- zentroei eustea bermatzen duten baliabideen jatorriari eta izaerari buruzko irizpideak.

Horrela, legeak bereizi ditu merkatuko araubidearen arabera prezio bidez dihardute zentro pribatuak eta diru publikoekin eutsitako zentroak; azken horien artean, legeak bereizi ditu, berebat, itunpeko zentro pribatuak eta titulartasun publikoko zentroak.

Legeak ezarri dio azken bi zentro- -mota horiek osatutako sare bikoiztuari derrigorrezko hezkuntza doan eskaintzea.

Derrigorrezko hezkuntzaren arauketa hori oinarritzen da Konstituzioaren araberako hezkuntza-sisteman berebiziko garrantzia duten bi printzipiotan: programazioan eta partaidetzan. Hain zuzen ere, printzipio horiek aldi berean kontuan hartzeak ahalbidetzen du modu orekatsuan bateratzea hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntza-askatasuna.

Estatuari eta autonomia-erkidegoei dagokie, irakaskuntzaren programazio orokorraren bidez, hezkuntza-beharrizanen estaldura bermatzea, behar adina eskola-postu eskainiz, urte askotan behar bezala kontuan hartu ez den irakaskuntza publikoa duin bihurtuz eta aukera-berdintasunak sustatuz.

Irakaskuntzaren programazio orokorrari buruzko mekanismoa II. tituluan arautu da. Mekanismo horrek ahalbidetu behar du hezkuntzara bideratutako baliabide publikoen erabilera arrazionalizatzea.

Programazio horrek aldi berean bermatu behar ditu, bateko, hezkuntzarako eskubidea, eta, besteko, eskaintzen diren doako eskola-postuen artean, irakaskuntza-zentroa hautatzeko aukera; hurrean ere, ez dago horrelako askatasunik, guztiontzat ez bada bermatzen hezkuntzarako eskubidea.

III. tituluan arautu dira zentro publikoetako gobernu-organoak, eta IV. tituluan itunpeko zentroen gobernu-organoak.

Batzuen zein besteen egituraren eta jardunbidearen oinarri da eskola-jarduera partaidetzari lotuta dagoela ulertzea, Konstituzioaren 27.7 artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz.

Kasu batean zein bestean, eta bakoitzak duen izaeraren berezitasunak aintzat hartuta, eskola-erkidegoaren partaidetza gauzatzen da zentroko eskola-kontseiluaren bidez.

Partaidetza, diru publikoak kontrolatu eta kudeatzeko bidea izateaz gain, mekanismo egokia ere bada, gurasoen, irakasleen, eta, azken buruan, ikasleen eskubide eta askatasunak behar bezala kontuan hartzeko. Zernahi gisaz, titularraren eskubideak errespetatu beharko dira beti.

Gainera, partaidetzak irakaskuntza-askatasuna zabaltzen du; esangura horretan, zentroa aukeratzean abian jartzen da prozesu aktiboa, hezkuntza-egitasmo zehatz bati bizitasuna ematen

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

diona eta egitasmo horren iraupena ziurtatzen duena.

Finalmente, la opción por la participación contenida en la Constitución es una opción por un sistema educativo moderno, en el que una comunidad escolar activa y responsable es coprotagonista de su propia acción educativa.

Amaitzeko, partaidetzaren alde Konstituzioak jaso duen aukera hezkuntza- sistema modernoari begira egin da; sistema horretan, eskola-erkidego aktibo eta arduratsua hezkuntza-ekintzaren protagonista ere bada.

El Título IV regula, asimismo, el régimen de conciertos a través del cual se materializa el sostenimiento público de los centros privados concertados que, junto con los públicos, contribuyen a hacer eficaz el derecho a la educación gratuita, y, de acuerdo con el artículo 27.9 de la Constitución, establece los requisitos que deben reunir tales centros.

Orobat, IV. tituluak arautu ditu itunak. Araubide horren bidez gauzatzen da itunpeko zentro pribatuei modu publikoan eustea; zentro horiek, publikoekin batera, laguntzen dute doako hezkuntzarako eskubidea eragingarri egiten. Bestalde, IV. tituluan ere ezarri dira zentro horiek bete behar dituzten betekizunak, Konstituzioaren 27.9 artikuluarekin bat etorriz.

Sobre la base de la regulación conjunta de los derechos y libertades que en materia educativa contiene la Constitución, los postulados de programación de la enseñanza y participación son principios correlativos y cooperantes de ayuda a los centros docentes que se contempla en el artículo 27.9, pues contribuyen a satisfacer las exigencias que del texto constitucional se derivan para el gasto público: Por un lado, que por su distribución sea equitativa y que se oriente a financiar la gratuidad —y a ello se dirige la programación—; por otro, optimizar el rendimiento educativo del gasto y velar por la transparencia de la Administración y calidad de la educación, lo que se asegura a través de la participación.

Konstituzioak hezkuntza-arloan jaso dituen eskubide eta askatasunen baterako arauketa oinarri hartuta, irakaskuntzaren programazioari eta partaidetzari buruzko postulatuak dira elkarrekiko eta lankidetza-izaerako printzipioak, 27.9 artikuluan jaso irakaskuntza-zentroen laguntzari begira. Hurrean ere, postulatu horiek lagundu egiten dute, gastu publikoaren eretzean, Konstituzioak ondorioztatutako betekizunak betetzen. Betekizun horien arabera, bateko, gastu publikoaren banaketa ekitatiboa izan behar da, eta bideratu behar da doakotasuna finantzatzera —helburu hori du programazioak—; besteko, gastuaren hezkuntza-etekina optimizatu behar da, eta zaindu behar dira administrazioaren gardentasuna eta hezkuntzaren kalitatea —hori partaidetzarekin ziurtatzen da—.

En el ámbito educativo, ese control social y esa exigencia de transparencia han sido encomendados, más directamente que a los poderes públicos, a padres, profesores y alumnos, lo que constituye una preferencia por la intervención social frente a la intervención estatal.

Hezkuntza-esparruan, gizarte-kontrol hori eta gardentasun-betebehar hori modu zuzenagoan ezarri zaie guraso, irakasle eta ikasleei, botere publikoei baino. Beraz, gizartearen esku-hartzeari eman zaio lehentasuna, eta ez estatuaren esku-hartzeari.

En suma, la Ley Orgánica Reguladora del Derecho a la Educación, se orienta a la modernización y racionalización de los tramos básicos del sistema educativo español, de acuerdo con lo establecido en el mandato constitucional en todos sus extremos.

Labur-zurrean esanda, Hezkuntzarako Eskubidea arautu duen Lege Organikoaren xedea da Espainiako hezkuntza- sistemaren oinarrizko eremuak eguneratu eta arrazionalizatzea, konstituzio- aginduan ezarritakoarekin oso-osoan bat etorriz.

Es por ello, una ley de programación de la enseñanza, orientada a la racionalización de la oferta de puestos escolares gratuitos, que a la vez que busca la asignación racional de los recursos públicos permite la cohonestación de libertad e igualdad.

Horregatik, lege honen oinarria irakaskuntzaren programazioa da. Hezkuntza-programazio horren helburua da doako eskola-postuen eskaintza arrazionalizatzea. Horrekin lortu nahi da baliabide publikoak modu arrazoitsu batean eratxikitzea.

Es también una ley que desarrolla el principio de participación establecido en el artículo 27.7, como salvaguarda de las libertades individuales y de los derechos del titular y de la comunidad escolar.

Gainera, horrexek ahalbidetzen du askatasuna eta berdintasuna bateratzea. Orobat, lege honek garatu du 27.7 artikuluan ezarritako partaidetza- printzipioa, printzipio horrek babesten baititu banakako askatasunak eta titularraren nahiz eskola-erkidegoaren eskubideak.

Es, además, una ley de regulación de los centros escolares y de sostenimiento de los concertados.

Bestalde, lege honek irakaskuntza- zentroak arautzen ditu eta itunpeko zentroei eusten die.

Es, por fin, una norma de convivencia basada en los principios de libertad, tolerancia y pluralismo, y que se ofrece como fiel prolongación de la letra y el

Amaitzeko, lege hau elkarbizitzarako araua da. Edu horretan, lege hau oinarritzen da askatasun-, tolerantzia- eta aniztasun-printzipioetan; areago, lege

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

espíritu del acuerdo alcanzado en la redacción de la Constitución para el ámbito de la educación.

hau egin da hezkuntza- esparrurako, Konstituzioa idaztean lortu zen adostasunaren isla eta muina aintzat hartuta.

## TÍTULO PRELIMINAR

## ATARIKO TITULUA

### Artículo 1

### 1. artikulua

1. Todos los españoles tienen derecho a una educación básica que les permita el desarrollo de su propia personalidad y la realización de una actividad útil a la sociedad.

1. Espainiar guztiek oinarrizko hezkuntzarako eskubidea dute, euren nortasuna garatu ahal izateko eta gizartearentzat onuragarri den jarduera gauzatu ahal izateko.

Esta educación será obligatoria y gratuita en el nivel de educación general básica y, en su caso, en la formación profesional de primer grado, así como en los demás niveles que la ley establezca.

Hezkuntza hori derrigorrezko eta doakoa izango da, oinarrizko hezkuntza orokorrean, eta, hala denean, lehen mailako lanbide-heziketan, bai eta legeak ezarri gainerako mailetan ere.

2. Todos, asimismo, tienen derecho a acceder a niveles superiores de educación, en función de sus aptitudes y vocación, sin que en ningún caso el ejercicio de este derecho esté sujeto a discriminaciones debidas a la capacidad económica, nivel social o lugar de residencia del alumno.

2. Orobat, guztion eskubidea da goragoko hezkuntza-mailak eskuratzea, nork bere gaitasunen eta bokazioaren arabera; eskubide hori egikaritzearen aurka ezin da inolako bereizkeriarik egin, ikaslearen ahalbide ekonomikoan, gizarte-mailan edo bizilekuan oinarrituta.

3. Los extranjeros residentes en España tendrán también derecho a recibir la educación a que se refieren los apartados uno y dos de este artículo.

3. Espainian bizi diren atzerritarrek ere eskubidea izango dute, artikulu honen lehenengo eta bigarren paragrafoek aipatu hezkuntza izateko.

### Artículo 2

### 2. artikulua

La actividad educativa, orientada por los principios y declaraciones de la Constitución, tendrá, en los centros docentes a que se refiere la presente Ley, los siguientes fines:

Konstituzioaren printzipioek eta adierazpenek oinarritutako hezkuntza- -jarduerak honako xedeak izango ditu, lege honek aipatu irakaskuntza-zentroetan:

a) El pleno desarrollo de la personalidad del alumno.

a) Ikaslearen nortasuna erabat garatzea.

b) La formación en el respeto de los derechos y libertades fundamentales, de la igualdad entre hombres y mujeres y en el ejercicio de la tolerancia y de la libertad dentro de los principios democráticos de convivencia.

b) Ikasleak heztea, oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzeko, eta tolerantzia eta askatasuna elkarbizitzaren printzipio demokratikoen arabera egikaritzeko.

c) La adquisición de hábitos intelectuales y técnicas de trabajo, así como de conocimientos científicos, técnicos, humanísticos, históricos y estéticos.

c) Ikasleek adimenezko ohiturak eta lanerako teknikak eskuratzea, bai eta jakite zientifiko, tekniko, humanistiko, historiko eta estetikoak ere.

d) La capacitación para el ejercicio de actividades profesionales.

d) Ikasleak gaitzea, lanbide-jarduerak gauzatzeko.

e) La formación en el respeto de la pluralidad lingüística y cultural de España.

e) Ikasleak heztea, Espainiako hizkuntza- eta kultura-aniztasuna errespeta dezaten.

f) La preparación para participar activamente en la vida social y cultural.

f) Ikasleak prestatzea, gizarte- eta kultura-bizitzan modu aktiboan parte har dezaten.

g) La formación para la paz, la cooperación y la solidaridad entre los pueblos y para la prevención de conflictos y para la resolución pacífica de los mismos y no violencia en todos los ámbitos de la vida personal, familiar y social.

g) Ikasleak heztea, dela herrialdeen arteko bake, lankidetza eta elkarlaguntzarako, dela gatazkak saihesteko nahiz gatazkak bake bidez konpontzeko, dela norberaren, familiaren eta gizartearen bizitzako edozein esparrutan indarkeriarik ez egoteko.

### Artículo 3

### 3. artikulua

Los profesores, en el marco de la Constitución, tienen garantizada la libertad de cátedra.

Irakasleek bermatuta dute katedra- -askatasuna, Konstituzioaren esparruan.

Su ejercicio se orientará a la realización de los fines educativos, de conformidad con los principios establecidos en esta Ley.

Eskubide hori egikarituko da hezkuntza- xedeak betetzeko, lege honetan ezarri printzipioekin bat etorriz.

### Artículo 4

### 4. artikulua

1. Los padres o tutores, en relación con la educación

1. Guraso edo tutoreek ondoko eskubideak dituzte,

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

de sus hijos o pupilos, tienen los siguientes derechos:

a) A que reciban una educación, con la máxima garantía de calidad, conforme con los fines establecidos en la Constitución, en el correspondiente Estatuto de Autonomía y en las leyes educativas.

b) A escoger centro docente tanto público como distinto de los creados por los poderes públicos.

c) A que reciban la formación religiosa y moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones.

d) A estar informados sobre el progreso del aprendizaje e integración socio- educativa de sus hijos.

e) A participar en el proceso de enseñanza y aprendizaje de sus hijos.

f) A participar en la organización, funcionamiento, gobierno y evaluación del centro educativo, en los términos establecidos en las leyes.

g) A ser oídos en aquellas decisiones que afecten a la orientación académica y profesional de sus hijos.

2. Asimismo, como primeros responsables de la educación de sus hijos o pupilos, les corresponde:

a) Adoptar las medidas necesarias, o solicitar la ayuda correspondiente en caso de dificultad, para que sus hijos o pupilos cursen las enseñanzas obligatorias y asistan regularmente a clase.

b) Proporcionar, en la medida de sus disponibilidades, los recursos y las condiciones necesarias para el progreso escolar.

c) Estimularles para que lleven a cabo las actividades de estudio que se les encomienden.

d) Participar de manera activa en las actividades que se establezcan en virtud de los compromisos educativos que los centros establezcan con las familias, para mejorar el rendimiento de sus hijos.

e) Conocer, participar y apoyar la evolución de su proceso educativo, en colaboración con los profesores y los centros.

f) Respetar y hacer respetar las normas establecidas por el centro, la autoridad y las indicaciones u orientaciones educativas del profesorado.

g) Fomentar el respeto por todos los componentes de la comunidad educativa.

**Artículo 5**

1. Los padres de alumnos tienen garantizada la libertad de asociación en el ámbito educativo.

2. Las asociaciones de padres de alumnos asumirán, entre otras, las siguientes finalidades:

euren seme-alaba edo tutoretzapekoen hezkuntzari begira:

a) Seme-alabek edo tutoretzapekoek hezkuntza izateko eskubidea, kalitate- -bermerik handienarekin, Konstituzioan, kasuan kasuko autonomia-estatutuan eta hezkuntza-legeetan ezarritako xedeekin bat etorriz.

b) Irakaskuntza-zentroa aukeratzeko eskubidea, publikoa nahiz botere publikoek sortutakoez bestekoa.

c) Seme-alabek edo tutoretzapekoek gurasoen uste sendoekin bat datorren heziketa erlijioso eta morala izateko eskubidea.

d) Informazioa jasotzeko eskubidea, euren seme-alaben ikasketa-aurrerapenari eta gizarte-hezkuntzako integrazioari buruz.

e) Euren seme-alaben irakaskuntzaeta ikasketa-prozesuan parte hartzeko eskubidea.

f) Hezkuntza-zentroaren antolaketa, jardunbide, gobernu eta ebaluazioan parte hartzeko eskubidea, legeetan ezarritakoaren arabera.

g) Gurasoek esan beharrekoa entzun beharko da, euren seme-alaben orientabide akademikoa eta lanbide-orientabidea ukitzen dituzten erabakietan.

2. Era berean, guraso eta tutoreen ardura da, euren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntzari begira erantzule nagusi diren heinean:

a) Beharrezko neurriak hartzea, edo zailtasunak daudenean kasuan kasuko laguntza eskatzea, euren seme-alabek edo tutoretzapekoek derrigorrezko irakaskuntzak egin ditzaten eta klasera ohikotasunez joan daitezen.

b) Euren ahalbideen arabera, eskolan aurrera egiteko behar diren baliabideak eta baldintzak ematea.

c) Seme-alabak edo tutoretzapekoak eragitea, beraiei agintzen zaizkien ikasketa-jarduerak gauzatzeko.

d) Zentroek familiekin batera ezartzen dituzten hezkuntza-konpromisoen ondoriozko jardueretan modu aktiboan parte hartzea, euren seme-alaben errendimendua hobetzeko.

e) Euren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuaren bilakaera jakitea, eta bilakaera horretan parte hartzea eta laguntzea, irakasleekin eta zentroekin elkarlanean.

f) Zentroak ezarritako arauak, agintari eta irakasleen hezkuntza-adierazpen edo -jarraibideak errespetatzea eta errespetaraztea.

g) Hezkuntza-erkidegoko kide guztienganako errespetua suspertzea.

**5. artikulua**

1. Ikasleen gurasoek bermatuta dute hezkuntza-esparruan elkartzeko eskubidea.

2. Ikasleen guraso-elkarteek euren gain hartuko dituzte, besteak beste, ondoko xedeak:

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

a) Asistir a los padres o tutores en todo aquello que concierne a la educación de sus hijos o pupilos.

b) Colaborar en las actividades educativas de los centros.

c) Promover la participación de los padres de los alumnos en la gestión del centro.

3. En cada centro docente podrán existir asociaciones de padres de alumnos integradas por los padres o tutores de los mismos.

4. Las asociaciones de padres de alumnos podrán utilizar los locales de los centros docentes para la realización de las actividades que les son propias, a cuyo efecto, los directores de los centros facilitarán la integración de dichas actividades en la vida escolar, teniendo en cuenta el normal desarrollo de la misma.

5. Las Administraciones educativas favorecerán el ejercicio del derecho de asociación de los padres, así como la formación de federaciones y confederaciones.

6. Reglamentariamente se establecerán, de acuerdo con la Ley, las características específicas de las asociaciones de padres de alumnos.

**Artículo 6**

1. Todos los alumnos tiene los mismos derechos y deberes, sin más distinciones que las derivadas de su edad y del nivel que estén cursando.

2. Todos los alumnos tienen el derecho y el deber de conocer la Constitución Española y el respectivo Estatuto de Autonomía, con el fin de formarse en los valores y principios reconocidos en ellos.

3. Se reconocen a los alumnos los siguientes derechos básicos:

a) A recibir una formación integral que contribuya al pleno desarrollo de su personalidad.

b) A que se respeten su identidad, integridad y dignidad personales.

c) A que su dedicación, esfuerzo y rendimiento sean valorados y reconocidos con objetividad.

d) A recibir orientación educativa y profesional.

e) A que se respete su libertad de conciencia, sus convicciones religiosas y sus convicciones morales, de acuerdo con la Constitución.

f) A la protección contra toda agresión física o moral.

g) A participar en el funcionamiento y en la vida del centro, de conformirdad con lo dispuesto en las normas vigentes.

h) A recibir ayudas y los apoyos precisos para compensar las carencias y desventajas de tipo personal, familiar, económico, social y cultural, especialmente en el caso de presentar necesidades educativas especiales, que impidan o dificulten el acceso y la permanencia en el sistema educativo.

a) Guraso edo tutoreei laguntzea, euren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntzari lotutako alde guztietan.

b) Zentroetako hezkuntza-jardueretan elkarlanean aritzea.

c) Ikasleen gurasoen partaidetza sustatzea, zentroaren kudeaketan.

3. Irakaskuntza-zentro bakoitzean ikasleen guraso-elkarteak egon ahal izango dira; ikasleen guraso eta tutoreek osatuko dituzte elkarte horiek.

4. Ikasleen guraso-elkarteek irakaskuntza-zentroetako lokalak erabili ahal izango dituzte, elkarteari dagozkion jarduerak gauzatzeko. Horretarako, zentroetako zuzendariek erraztu egingo dute jarduera horiek eskola-bizitzarekin bat egitea, eskola-bizitza ohikotasunez zer-nola gauzatzen den aintzat hartuta.

5. Hezkuntza-administrazioek lagunduko dute gurasoek elkartzeko duten eskubidea egikaritzea, bai eta federazio eta konfederazioak sortzea ere.

6. Erregelamendu bidez ezarriko dira, lege honekin bat etorriz, ikasleen guraso-elkarteen ezaugarri bereziak.

**6. artikulua**

1. Ikasle guztiek eskubide eta eginbehar berberak dituzte, adinaren eta ikasketa-mailaren araberako desberdintasunak gorabehera.

2. Ikasle guztiek eskubidea eta eginbeharra dute, Espainiako Konstituzioa eta kasuan kasuko autonomia-estatutua ezagutzeko, horietan aitortutako balioetan eta printzipioetan hezteko.

3. Oinarrizko eskubide hauek aitortzen zaizkie ikasleei:

a) Heziketa osoa izateko eskubidea, heziketa hori lagungarri izan dadin, nortasuna erabat garatzeko.

b) Euren nortasun, osotasun eta duintasun pertsonala errespetatzeko eskubidea.

c) Euren arduraldia, ahalegina eta errendimendua modu objektiboan balioetsi eta aitortzeko eskubidea.

d) Hezkuntza- eta lanbide-orientabidea izateko eskubidea.

e) Euren kontzientzia-askatasuna, sinesmen erlijiosoak eta moralak errespetatzeko eskubidea, Konstituzioarekin bat etorriz.

f) Eraso fisiko edo moral ororen aurkako babesa izateko eskubidea.

g) Zentroaren jardunbidean eta bizitzan parte hartzeko eskubidea, indarrean dauden arauetan xedatutakoarekin bat etorrita.

h) Gabezia eta desabantaila pertsonalak, familiakoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak konpentsatzeko laguntzak eta babesak jasotzeko eskubidea, gehienbat, hezkuntza-sisteman sartzea eta bertan irautea eragozten edo zailtzen duten hezkuntza-beharrizan bereziak izanez gero.

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

i) A la protección social, en el ámbito educativo, en los casos de infortunio familiar o accidente.

i) Gizarte-babesa izateko eskubidea, hezkuntza-esparruan, familia-ezbeharren edo istripuen kasuetan.

4. Son deberes básicos de los alumnos:

4. Ikasleen oinarrizko eginbeharrak dira:

a) Estudiar y esforzarse para conseguir el máximo desarrollo según sus capacidades.

a) Ikastea eta ahaleginak egitea euren gaitasunen araberako garapen handiena lortzeko.

b) Participar en las actividades formativas y, especialmente, en las escolares y complementarias.

b) Heziketa-jardueretan parte hartzea, eta, bereziki, eskolako jardueretan eta jarduera osagarrietan.

c) Seguir las directrices del profesorado.

c) Irakasleen jarraibideak betetzea.

d) Asistir a clase con puntualidad.

d) Klasera garaiz iristea.

e) Participar y colaborar en la mejora de la convivencia escolar y en la consecución de un adecuado clima de estudio en el centro, respetando el derecho de sus compañeros a la educación y la autoridad y orientaciones del profesorado.

e) Eskolako elkarbizitza hobetzeko eta zentroan ikasketa-giro egokia lortzeko parte hartzea eta laguntzea, gainerako ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintea nahiz orientabideak errespetatuta.

f) Respetar la libertad de conciencia, las convicciones religiosas y morales, y la dignidad, integridad e intimidad de todos los miembros de la comunidad educativa.

f) Hezkuntza-erkidegoko kide guztien kontzientzia-askatasuna, sinesmen erlijioso eta moralak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatzea.

g) Respetar las normas de organización, convivencia y disciplina del centro educativo, y h) Conservar y hacer un buen uso de las instalaciones del centro y materiales didácticos.

g) Hezkuntza-zentroko antolaketa-, elkarbizitza- eta diziplina-arauak errespetatzea, eta h) Zentroko instalazioak eta material didaktikoa artatzea eta behar bezala erabiltzea.

**Artículo 7**

**7. artikulua**

1. Los alumnos podrán asociarse, en función de su edad, creando organizaciones de acuerdo con la Ley y con las normas que, en su caso, reglamentariamente se establezcan.

1. Ikasleak adinaren arabera elkartu ahal izango dira, erakundeak sortuz; erakunde horiek bat etorri beharko dira legearekin, eta, kasuan-kasuan, ezar daitezkeen arauekin.

2. Las asociaciones de alumnos asumirán, entre otras, las siguientes finalidades:

2. Ikasle-elkarteek euren gain hartuko dituzte, besteak beste, ondoko xedeak:

a) Expresar la opinión de los alumnos en todo aquello que afecte a su situación en los centros.

a) Ikasleen iritzia azaltzea, ikasleek zentroetan duten egoerari buruzko gaietatik edozeinetan.

b) Colaborar en la labor educativa de los centros y en las actividades complementarias y extraescolares de los mismos.

b) Zentroetako heziketa-lanean, eta zentroetako jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetan, elkarlanean aritzea.

c) Promover la participación de los alumnos en los órganos colegiados del centro.

c) Ikasleen partaidetza sustatzea, zentroaren kide anitzeko organoetan.

d) Realizar actividades culturales, deportivas y de fomento de la acción cooperativa y de trabajo en equipo.

d) Kultura-jarduerak, kirol-jarduerak eta lankidetza nahiz taldean lan egiteko ekintzak suspertzeko jarduerak gauzatzea.

e) Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

e) Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

3. Las Administraciones educativas favorecerán el ejercicio del derecho de asociación de los alumnos, así como la formación de federaciones y confederaciones.

3. Hezkuntza-administrazioek lagunduko dute ikasleek elkartzeko duten eskubidea egikaritzea, eta federazio nahiz konfederazioak sortzea.

**Artículo 8**

**8. artikulua**

Se garantiza en los centros docentes el derecho de reunión de los profesores, personal de administración y de servicios, padres de alumnos y alumnos, cuyo ejercicio se facilitará de acuerdo con la legislación vigente y teniendo en cuenta el normal desarrollo de las actividades docentes.

Irakaskuntza-zentroetan bermatzen da irakasleen, administrazioko eta zerbitzuetako langileen, ikasleen gurasoen eta ikasleen bilera-eskubidea. Eskubide hori egikaritzea ahalbidetuko da, indarrean dagoen legearekin bat etorriz eta irakaskuntza-jarduerak ohikotasunez gauzatu behar direla kontuan hartuta.

A fin de estimular el ejercicio efectivo de la

Ikasleek hezkuntza-zentroetan eragingarritasunez



© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

participación de los alumnos en los centros educativos y facilitar su derecho de reunión, los centros educativos establecerán, al elaborar sus normas de organización y funcionamiento, las condiciones en las que sus alumnos pueden ejercer este derecho.

parte hartzea eragiteko, eta ikasleen bilera-eskubidea ahalbidetzeko xedearekin, hezkuntza-zentroek ezarriko dute, euren antolaketa- eta jardunbide- arauak egitean, ikasleek zein baldintzatan egikari dezaketen eskubide hori.

En los términos que establezcan las Administraciones educativas, las decisiones colectivas que adopten los alumnos, a partir del tercer curso de la educación secundaria obligatoria, con respecto a la asistencia a clase no tendrán la consideración de faltas de conducta ni serán objeto de sanción, cuando éstas hayan sido resultado del ejercicio del derecho de reunión y sean comunicadas previamente a la dirección del centro.

Hezkuntza-administrazioek ezarritakoaren arabera, ikasleek klasera joatearen inguruan hartutako erabaki kolektiboak, derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera, ez dira hartuko jokabide-falta gisa, eta ez dira zehatuko, noiz eta erabaki horiek bilera-eskubidea egikaritzearen ondorio izan, eta aurretiaz komunikatzen zaizkionean zentroko zuzendaritzari.

**TÍTULO PRIMERO DE LOS CENTROS DOCENTES**

**LEHENENGO TITULUA IRAKASKUNTZA-ZENTROAK**

**CÁPITULO PRIMERO Disposiciones generales**

**LEHENENGO KAPITULUA Xedapen orokorrak**

**Artículo 9**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

**9. artikulua**

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**Artículo 10**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

**10. artikulua**

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**Artículo 11**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

**11. artikulua**

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**Artículo 12**

1. Los centros docentes españoles en el extranjero tendrán una estructura y un régimen singularizados a fin de acomodarlos a las exigencias del medio y a lo que, en su caso, dispongan los convenios internacionales.

2. Sin perjuicio de lo establecido en los convenios internacionales o, en su defecto, del principio de reciprocidad, los centros extranjeros en España se ajustarán a lo que el Gobierno determine reglamentariamente.

**12. artikulua**

1. Espainiako irakaskuntza-zentroek, atzerrian daudenean, egitura eta araubide bereziak izango dituzte, euren ingurura, edo, hala denean, nazioarteko hitzarmenek xedatutakora egoki daitezen.

2. Nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoa gorabehera, edo, horrelakorik izan ezean, elkarrekikotasun-printzipioa gorabehera, atzerriko irakaskuntza-zentroek, Espainian daudenean, bete beharko dute Gobernuak erregelamendu bidez ezarritakoa.

**Artículo 13**

Todos los centros docentes tendrán una denominación específica y se inscribirán en un registro público dependiente de la Administración educativa competente, que deberá dar traslado de los asientos registrales al Ministerio de Educación y Ciencia, en el plazo máximo de un mes.

No podrán emplearse por parte de los centros identificaciones diferentes a las que figuren en la correspondiente inscripción registral.

**13. artikulua**

Irakaskuntza-zentro guztiek izen zehatza izango dute, eta guztiak inskribatuko dira Hezkuntza-administrazio eskudunaren mendeko erregistro publikoan. Hezkuntza-administrazio horrek, askoz jota, hilabeteko epean bidali beharko dizkio erregistro-idazkunak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari.

Zentroek ezin izango dituzte erabili kasuan kasuko erregistro-inskripzioan jasotako identifikazioen aldean desberdinak direnak.

**Artículo 14**

1. Todos los centros docentes deberán reunir unos requisitos mínimos para impartir las enseñanzas con

**14. artikulua**

1. Irakaskuntza-zentro guztiek bete beharko dituzte gutxieneko betekizun batzuk, kalitate-bermearekin

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

garantía de calidad.

El Gobierno establecerá reglamentariamente dichos requisitos mínimos.

2. Los requisitos mínimos se referirán a titulación académica del profesorado, relación numérica alumno-profesor, instalaciones docentes y deportivas y número de puestos escolares.

irakasteko.

Gobernuak erregelamendu bidez ezarriko ditu betekizun horiek.

2. Gutxieneko betekizun horiek izango dira irakasleen titulazio akademikoaren ingurukoak, ikasle eta irakasleen arteko kopuru-erlazioaren ingurukoak, irakaskuntza- eta kirol-instalazioen ingurukoak, eta eskola-postuen ingurukoak.

**Artículo 15**

En la medida en que no constituya discriminación para ningún miembro de la comunidad educativa, y dentro de los límites fijados por las leyes, los centros tendrán autonomía para establecer materias optativas, adaptar los programas a las características del medio en que estén insertos, adoptar métodos de enseñanza y organizar actividades culturales escolares y extraescolares.

**15. artikulua**

Hezkuntza-erkidegoaren kideentzat bereizkeriarik egiten ez den neurrian, eta legeak ezarritako mugen barruan, zentroek autonomia izango dute aukerako irakasgaiak ezartzeko, programak zentroaren inguruak dituen ezaugarrietara egokitzeko, irakaskuntza-metodoak ezartzeko eta kultura-jarduerak nahiz eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeko.

**CÁPITULO II De los centros públicos**

**II. KAPITULUA Zentro publikoak**

**Artículo 16**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

**16. artikulua**

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**Artículo 17**

La creación y supresión de centros públicos se efectuará por el Gobierno o por el Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma correspondiente, en el ámbito de sus respectivas competencias.

**17. artikulua**

Gobernuak, edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko gobernu-kontseiluak, zentro publikoak sortu eta ezabatuko ditu, nork bere eskumenen esparruan.

**Artículo 18**

1. Todos los centros públicos desarrollarán sus actividades con sujeción a los principios constitucionales, garantía de neutralidad ideológica y respeto de las opciones religiosas y morales a que hace referencia el artículo 27.3 de la Constitución.

2. La Administración educativa competente y, en todo caso, los órganos de gobierno del centro docente velarán por la efectiva realización de los fines de la actividad educativa, la mejora de la calidad de la enseñanza y el cumplimiento de lo dispuesto en el apartado anterior de este artículo.

**18. artikulua**

1. Zentro publiko guztiek euren jarduerak gauzatuko dituzte konstituzio- printzipioak kontuan hartuta, ideologia- neutraltasuna bermatuta eta Konstituzioaren 27.3 artikuluak aipatu aukera erlijioso eta moralak errespetatuta.

2. Hezkuntza-administrazio eskudunak eta, edozein kasutan, irakaskuntza- zentroko gobernu-organoek zainduko dute hezkuntza-jardueraren xedeak benetan gauzatzea, irakaskuntzaren kalitatea hobetzea eta artikulu honen aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzea.

**Artículo 19**

En concordancia con los fines establecidos en la presente ley, el principio de participación de los miembros de la comunidad escolar inspirará las actividades educativas y la organización y funcionamiento de los centros públicos.

La intervención de los profesores, de los padres y, en su caso, de los alumnos en el control y gestión de los centros públicos se ajustará a lo dispuesto en el Título Tercero de esta Ley.

**19. artikulua**

Lege honetan ezarri xedeekin bat etorriz, eskola-erkidegoko kideen partaidetza- printzipioak oinarrituko ditu hezkuntza-jarduerak, eta zentro publikoen antolaketa eta jardunbidea.

Irakasleek, gurasoek eta, hala denean, ikasleek ere izan dezaketen esku-hartzea, zentro publikoen kontrolean eta kudeaketan, lege honen hirugarren tituluan xedatutakoari egokituko zaio.

**Artículo 20**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

**20. artikulua**

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**CAPÍTULO III De los centros privados**

**III. KAPITULUA Zentro pribatuak**

**Artículo 21**

**21. artikulua**

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

1. Toda persona física o jurídica de carácter privado y de nacionalidad española tiene libertad para la creación y dirección de centros docentes privados, dentro del respeto a la Constitución y lo establecido en la presente Ley.

1. Pertsona fisiko edo juridiko orok, izaera pribatua eta Espainiako naziotasuna izanik, askatasuna du irakaskuntza- zentro pribatuak sortu eta zuzentzeko, Konstituzioa eta lege honetan ezarritakoa errespetatuz gero.

2. No podrán ser titulares de centros privados:

2. Ezin izango dira zentro pribatuen titular izan:

a) Las personas que presten servicios en la Administración educativa estatal, autonómica o local.

a) Estatuko, autonomia-erkidegoko edo toki-mailako hezkuntza-administrazioan zerbitzuak ematen dituzten pertsonak.

b) Quienes tengan antecedentes penales por delitos dolosos.

b) Dolozko delituengatik zigor-aurrekariak dituztenak.

c) Las personas físicas o jurídicas expresamente privadas del ejercicio de este derecho por sentencia judicial firme.

c) Epai judizial irmoaren bidez eskubide hau egikaritzeaz esanbidez gabetuak izan diren pertsona fisiko edo juridikoak.

d) Las personas jurídicas en las que las personas incluidas en los apartados anteriores desempeñen cargos rectores o sean titulares del 20 por 100 o más del capital social.

d) Pertsona juridikoak, baldin eta aurreko paragrafoetako pertsonek zuzendaritza- karguak badituzte pertsona juridiko horietan, edo sozietate-kapitalaren 100eko 20a edo hori baino gehiago haien titulartasunpekoa bada.

**Artículo 22**

**22. artikulua**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**Artículo 23**

**23. artikulua**

La apertura y funcionamiento de los centros docentes privados que impartan enseñanzas, tanto de régimen general como de régimen especial, se someterán al principio de autorización administrativa.

Administrazio-baimenaren printzipioaren mende egongo dira araubide orokorreko nahiz araubide bereziko irakaskuntza eskaintzen duten irakaskuntza- zentro pribatuen irekiera eta jardunbidea.

La autorización se concederá siempre que reúnan los requisitos mínimos que se establezcan de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 14 de esta Ley.

Baimena emango da, baldin eta irakaskuntza-zentroek betetzen badituzte lege honen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat datozen gutxieneko betekizunak.

Estos centros gozarán de plenas facultades académicas.

Zentro horiek ahalmen akademiko osoak izango dituzte.

La autorización se revocará cuando los centros dejen de reunir estos requisitos.

Baimena ezeztatuko da, zentroek betekizun horiek ez dituztenean.

**Artículo 24**

**24. artikulua**

1. Los centros privados que impartan enseñanzas que no conduzcan a la obtención de un título con validez académica quedarán sometidos a las normas de derecho común.

1. Zentro pribatuek eskainitako irakaskuntzak ez badu ahalbidetzen balio akademikoa duen titulua lortzea, zentro pribatu horiek egongo dira zuzenbide erkidegoko arauen mende.

Estos centros no podrán utilizar ninguna de las denominaciones establecidas para los centros docentes, ni cualesquiera otras que pudieran inducir a error o confusión con aquéllas.

Zentro horiek ezin izango dute erabili irakaskuntza-zentroetarako ezarri izenetarik bat ere, ezta izen horiei begira errakuntza edo nahasmendua sor dezakeen izenik ere.

2. Por razones de protección a la infancia, los centros privados que acogen de modo regular niños de edades correspondientes a la educación infantil quedarán sometidos al principio de autorización administrativa a que se refiere el artículo 23.

2. Haurrak babesteko arrazoiengatik, ohikotasunez haur-hezkuntzako haurrak hartzen dituzten zentro pribatuak egongo dira 23. artikuluak aipatu administrazio-baimenaren printzipioaren mende.

**Artículo 25**

**25. artikulua**

Dentro de las disposiciones de la presente Ley y normas que la desarrollen, los centros privados no concertados gozarán de autonomía para establecer su régimen interno, seleccionar su profesorado de

Lege honen xedapenekin eta berau garatzen duten arauekin bat etorriz, itundu gabeko zentro pribatuek autonomia izango dute, euren barne-araubidea ezarri, indarreko legeriak agindu titulazioaren

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

acuerdo con la titulación exigida por la legislación vigente, elaborar el proyecto educativo, organizar la jornada en función de las necesidades sociales y educativas de sus alumnos, ampliar el horario lectivo de áreas o materias, determinar el procedimiento de admisión de alumnos, establecer las normas de convivencia y definir su régimen económico.

**Artículo 26**

1. Los centros privados no concertados podrán establecer en sus respectivos reglamentos de régimen interior órganos a través de los cuales se canalice la participación de la comunidad educativa.

2. La participación de los profesores, padres y, en su caso, alumnos en los centros concertados se regirá por lo dispuesto en el Título Cuarto de la presente Ley.

**TÍTULO II PARTICIPACIÓN EN LA PROGRAMACIÓN GENERAL DE LA ENSEÑANZA**

**Artículo 27**

1. Los Poderes públicos garantizarán el ejercicio efectivo del derecho a la educación mediante una programación general de la enseñanza, con la participación efectiva de todos los sectores afectados, que atienda adecuadamente las necesidades educativas y la creación de centros docentes.

2. A tales efectos, el Estado y las Comunidades Autónomas definirán las necesidades prioritarias en materia educativa, fijarán los objetivos de actuación del período que se considere y determinarán los recursos necesarios, de acuerdo con la planificación económica general del Estado.

3. La programación general de la enseñanza que corresponda a las Comunidades Autónomas en su ámbito territorial comprenderá en todo caso una programación específica de los puestos escolares en la que se determinarán las comarcas, municipios y zonas donde dichos puestos hayan de crearse.

La programación específica de puestos escolares de nueva creación en los niveles gratuitos deberá tener en cuenta, en todo caso, la oferta existente de centros públicos y concertados.

**Artículo 28**

A los fines previstos en el artículo anterior, y con carácter previo a la deliberación del Consejo Escolar del Estado, se reunirá la Conferencia de Consejeros titulares de educación de los Consejos de Gobierno de las Comunidades Autónomas y el Ministro de Educación y Ciencia, convocada y presidida por éste.

Asimismo, la Conferencia se reunirá cuantas veces sea preciso para asegurar la coordinación de la política educativa y el intercambio de información.

**Artículo 29**

Los sectores interesados en la educación participarán en la programación general de la enseñanza a través de los órganos colegiados que

arabera irakasleak aukeratu, hezkuntza-proiektua egin, lanaldia euren ikasleen gizarte- eta hezkuntza- -beharrizanen arabera antolatu, arloen eta jakintzagaien eskola-ordutegia zabaldu, ikasleak onartzeko prozedura finkatu, elkarbizitzarako arauak ezarri edo euren ekonomia-araubidea definitzeko.

**26. artikulua**

1. Itundu gabeko zentro pribatuek hezkuntza-erkidegoaren partaidetza bideratzeko organoak ezarri ahal izango dituzte barne-araudietan.

2. Lege honen laugarren tituluan xedatutakoak arautuko du itunpeko zentroetan irakasleen, gurasoen eta, hala denean, ikasleen partaidetza.

**II. TITULUA PARTAIDETZA IRAKASKUNTZAREN PROGRAMAZIO OROKORREAN**

**27. artikulua**

1. Botere publikoek bermatuko dute hezkuntzarako eskubidea eragingarritasunez egikaritzea, irakaskuntzaren programazio orokor baten bidez, ukitutako sektore guztien benetako partaidetzarekin. Programazio horrek behar bezala kontuan hartuko ditu hezkuntza-beharrizanak eta irakaskuntza-zentroen sorrera.

2. Ondore horietarako, estatuak eta autonomia-erkidegoek hezkuntza-arloan lehentasuna duten beharrizanak definitu, kasuan kasuko epealdirako jardute-helburuak ezarri eta behar besteko baliabideak finkatuko dituzte, estatuaren ekonomia-plangintza orokorrarekin bat etorriz.

3. Autonomia-erkidegoen lurralde-esparruko irakaskuntzaren programazio orokorrak beti ezarriko du eskola-postuen programazio berezia; programazio horretan zehaztuko da eskola-postu horiek zein eskualde, udalerri eta gunetan sortu behar diren.

Doako mailetan sortu berri diren eskola- postuen programazio bereziak, edozein kasutan, kontuan hartu beharko du zentro publikoen eta itunpeko zentroen eskaintza.

**28. artikulua**

Aurreko artikuluan ezarri xedeetarako, eta Estatuaren Eskola Kontseiluak eztabaida egin baino lehenago, autonomia-erkidegoen gobernu-kontseiluetako hezkuntza-kontseilari titularrek, eta Hezkuntza eta Zientzia ministroak osatu Konferentzia bilduko da; deialdia ministro horrek egingo du, eta bera izango da buru.

Era berean, Konferentzia behar den beste aldiz bilduko da, hezkuntza-politikaren koordinazioa eta informazioa trukatzea ziurtatzeko.

**29. artikulua**

Hezkuntzan interesa duten sektoreek irakaskuntzaren programazio orokorrean parte hartuko dute kide anitzeko organoen bidez; organo

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

se regulan en los artículos siguientes.

**Artículo 30**

El Consejo Escolar del Estado es el órgano de ámbito nacional para la participación de los sectores afectados en la programación general de la enseñanza y de asesoramiento respecto de los proyectos de ley o reglamentos que hayan de ser propuestos o dictados por el Gobierno.

**Artículo 31**

1. En el Consejo Escolar del Estado, cuyo Presidente será nombrado por Real Decreto, a propuesta del Ministro de Educación y Ciencia de entre personas de reconocido prestigio en el ámbito educativo, estarán representados:

a) Los profesores, cuya designación se efectuará por sus centrales y asociaciones sindicales más representativas, de modo que sea proporcional su participación, así como la de los diferentes niveles educativos y las de los sectores público y privado de la enseñanza.

b) Los padres de los alumnos, cuya designación se efectuará por las confederaciones de asociaciones de padres de alumnos más representativas.

c) Los alumnos, cuya designación se realizará por las confederaciones de asociaciones de alumnos más representativas.

d) El personal de administración y de servicios de los centros docentes, cuya designación se efectuará por sus centrales y asociaciones sindicales de mayor representatividad.

e) Los titulares de los centros privados, cuya designación se producirá a través de las organizaciones de titulares y empresariales de enseñanza más representativas.

f) Las centrales sindicales y organizaciones patronales de mayor representatividad en los ámbitos laboral y empresarial.

g) La Administración educativa del Estado, cuyos representantes serán designados por el Ministro de Educación y Ciencia.

h) Las Universidades, cuya participación se formalizará a través del órgano superior de representación de las mismas.

i) Las Entidades locales a través de la asociación de ámbito estatal con mayor implantación.

j) Las personalidades de reconocido prestigio en el campo de la educación, de la renovación pedagógica y de las instituciones y organizaciones confesionales y laicas de mayor tradición y dedicación a la enseñanza, designadas por el Ministro de Educación y Ciencia.

k) Las organizaciones de mujeres con implantación en todo el territorio del Estado.

l) El Instituto de la Mujer.

m) Personalidades de reconocido prestigio en la

horiek hurrengo artikuluetan arautu dira.

**30. artikulua**

Estatuan, Estatuaren Eskola Kontseilua da ukitutako sektoreek irakaskuntzaren programazio orokorrean parte hartzeko organoa, bai eta Gobernuak proposatu edo eman beharreko lege- -proiektuen edo erregelamenduen inguruko aholku-organoa ere.

**31. artikulua**

1. Estatuaren Eskola Kontseiluko lehendakaria errege-dekretu bidez izendatuko da, Hezkuntza eta Zientzia ministroak hala proposatuta, hezkuntza- -esparruan ospe handia duten pertsonen artean. Estatuaren Eskola Kontseiluan ordezkatuta egongo dira:

a) Irakasleak. Irakasleen ordezkariak izendatuko dituzte euren zentralek eta ordezkaritza handieneko sindikatuek; irakasleen ordezkarien partaidetza proportzionala izango da, bai eta hezkuntza-maila desberdinen, eta irakaskuntzako sektore publiko eta pribatuen partaidetza ere.

b) Ikasleen gurasoak. Ikasleen guraso- elkarteen ordezkaritza handieneko konfederazioek izendatuko dituzte guraso horiek.

c) Ikasleak. Ordezkaritza handieneko ikasle-elkarteen konfederazioek izendatuko dituzte ikasle horiek.

d) Irakaskuntza-zentroetako administrazioko eta zerbitzuetako langileak. Langile horiek izendatuko dituzte euren zentralek eta ordezkaritza handieneko sindikatuek.

e) Zentro pribatuetako titularrak. Horiek izendatuko dituzte irakaskuntza-arloko titularren eta enpresaburuen ordezkaritza handieneko erakundeek.

f) Lan- eta enpresa-esparruan ordezkaritza handieneko sindikatu-zentralak eta ugazaben erakundeak.

g) Estatuaren Hezkuntza Administrazioa. Hezkuntza eta Zientzia ministroak izendatuko ditu horren ordezkariak.

h) Unibertsitateak. Horien partaidetza gauzatuko da unibertsitateetako ordezkaritza- organo nagusiaren bidez.

i) Toki-erakundeak, estatuan sendoen sustraituta dagoen elkartearen bidez.

j) Hezkuntza-esparruko, pedagogia- -berrikuntzako eta irakaskuntzan tradizio eta arduraldi gehien duten erakunde eta antolakunde konfesional eta laikoetako ospe handiko pertsonak. Hezkuntza eta Zientzia ministroak izendatuko ditu horiek.

k) Estatuko lurralde guztian sustraituta dauden emakume-erakundeak.

l) Emakumearen Institutua.

m) Genero-indarkeria ezabatzeko borrokan ospe

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

lucha para la erradicación de la violencia de género.

n) Los Consejos Escolares de ámbito autonómico.

2. El Gobierno, a propuesta del Ministerio de Educación y Ciencia, aprobará las normas que determinen la representación numérica de los miembros del Consejo Escolar del Estado, así como su organización y funcionamiento.

La representación de los miembros de la comunidad educativa a que se refieren los apartados a), b), c) y d) de este artículo no podrá ser en ningún caso inferior a un tercio del total de los componentes de este Consejo.

**Artículo 32**

1. El Consejo Escolar del Estado será consultado preceptivamente en las siguientes cuestiones:

a) La programación general de la enseñanza.

b) Las normas básicas que haya de dictar el Estado para el desarrollo del artículo 27 de la Constitución Española o para la ordenación del sistema educativo.

c) Los proyectos de reglamento que hayan de ser aprobados por el Gobierno en desarrollo de la legislación básica de la enseñanza.

d) La regulación de las condiciones para la obtención, expedición y homologación de los títulos académicos y su aplicación en casos dudosos o conflictivos.

e) Las disposiciones que se refieran al desarrollo de la igualdad de derechos y oportunidades y al fomento de la igualdad real y efectiva entre hombres y mujeres en la enseñanza.

f) La ordenación general del sistema educativo y la determinación de los niveles mínimos de rendimiento y calidad.

g) La determinación de los requisitos mínimos que deben reunir los Centros docentes para impartir las enseñanzas con garantía de calidad.

2. Asimismo, el Consejo Escolar del Estado informará sobre cualquiera otra cuestión que el Ministerio de Educación y Ciencia decida someterle a consulta.

3. El Consejo Escolar del Estado, por propia iniciativa, podrá formular propuestas al Ministerio de Educación y Ciencia sobre cuestiones relacionadas con los puntos enumerados en los apartados anteriores y sobre cualquier otra concerniente a la calidad de la enseñanza.

**Artículo 33**

1. El Consejo Escolar del Estado elaborará y hará público anualmente un informe sobre el sistema educativo, donde deberán recogerse y valorarse los diversos aspectos del mismo, incluyendo la posible situación de violencia ejercida en la comunidad educativa.

Asimismo se informará de las medidas que en relación con la prevención de violencia y fomento de

handia duten pertsonak.

n) Autonomia-erkidegoetako eskola- kontseiluak.

2. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak hala proposatuta, Gobernuak onetsiko ditu Estatuaren Eskola Kontseiluko kideen ordezkaritza-kopurua zehazteko arauak, bai eta Estatuaren Eskola Kontseiluaren antolaketa eta jardunbidearen inguruko arauak ere.

Artikulu honen a), b), c) eta d) idatz- -zatietan aipatu hezkuntza-erkidegoko kideen ordezkaritza ezin izango da inola ere izan kontseilu hori osatzen duten kide guztien herena baino txikiagoa.

**32. artikulua**

1. Estatuaren Eskola Kontseilua nahitaez kontsultatu beharko da ondoko gaiak direla eta:

a) Irakaskuntzaren programazio orokorra.

b) Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko edo hezkuntza-sistema antolatzeko estatuak eman behar dituen oinarrizko arauak.

c) Gobernuak irakaskuntzako oinarrizko legeria garatzeko onetsi beharreko erregelamendu-proiektuak.

d) Titulu akademikoak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketa, eta baldintza horien aplikazioa, zalantzak edo gatazkak daudenean.

e) Irakaskuntzan gizonen eta emakumeen artean eskubide- eta aukera- -berdintasuna garatzeari, eta benetakoa eta eragingarria den berdintasuna suspertzeari buruzko xedapenak.

f) Irakaskuntza-sistemaren antolaketa orokorra, eta errendimendu eta kalitatearen gutxieneko mailen zehaztapena.

g) Irakaskuntza-zentroek kalitateko bermearekin irakasteko bete behar dituzten gutxieneko betekizunak ezartzea.

2. Era berean, Estatuaren Eskola Kontseiluak informazioa emango du, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak zer gairen inguruko kontsulta egitea erabaki eta horren inguruan.

3. Estatuaren Eskola Kontseiluak bere kabuz proposamenak egin ahal izango dizkio Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari, aurreko paragrafoetan zerrendatutako puntuekin zerikusia duten gaien inguruan eta irakaskuntzaren kalitateari buruzko gaietatik edozeinen inguruan.

**33. artikulua**

1. Estatuaren Eskola Kontseiluak urtero egin eta argitaratuko du hezkuntza- sistemari buruzko txostena. Txosten horretan jaso eta baloratu beharko dira hezkuntza-sistemaren alde desberdinak, hezkuntza-erkidegoan izandako balizko indarkeria-egoera barne.

Orobat, txosten horretan informazioa emango da, hezkuntza-administrazioek indarkeria saihesteko, eta

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

la igualdad entre hombres y mujeres establezcan las Administraciones educativas.

2. El Consejo Escolar del Estado se reunirá al menos una vez al año con carácter preceptivo.

**Artículo 34**

En cada Comunidad Autónoma existirá un Consejo Escolar para su ámbito territorial, cuya composición y funciones serán reguladas por una Ley de la Asamblea de la Comunidad Autónoma correspondiente que, a efectos de la programación de la enseñanza, garantizará en todo caso la adecuada participación de los sectores afectados.

**Artículo 35**

Los poderes públicos, en el ejercicio de sus respectivas competencias, podrán establecer Consejos Escolares de ámbitos territoriales distintos al que se refiere el artículo anterior, así como dictar las disposiciones necesarias para la organización y funcionamiento de los mismos.

En todo caso, deberá garantizarse la adecuada participación de los sectores afectados en los respectivos Consejos.

**TÍTULO III DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO DE LOS CENTRO PÚBLICOS**

Derogado, por la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, de la Participación, la Evaluación y el Gobierno de los Centros Docentes (BOE, núm. 278, 21 de noviembre)

**TÍTULO IV DE LOS CENTROS CONCERTADOS**

**Artículo 47**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

**Artículo 48**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

**Artículo 49**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

**Artículo 50**

Los centros concertados se considerarán asimilados a las fundaciones benéfico-docentes a efectos de la aplicación a los mismos de los beneficios, fiscales y no fiscales, que estén reconocidos a las citadas entidades, con independencia de cuantos otros pudieran corresponderles en consideración a la actividad educativa que desarrollan.

**Artículo 51**

1. El régimen de conciertos que se establece en el presente Título implica, por parte de los titulares de los centros, la obligación de impartir gratuitamente las enseñanzas objeto de los mismos.

2. En los centros concertados, las actividades

gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna suspertzeko ezarritako neurrien inguruan.

2. Nahitaezkoa da Estatuaren Eskola Kontseilua urtean behin bederen biltzea.

**34. artikulua**

Autonomia-erkidego bakoitzaren lurralde-esparrurako eskola-kontseilu bat izango da. Kontseilu horren osaera eta eginkizunak arautuko ditu kasuan kasuko autonomia-erkidegoko biltzarreko legeak. Irakaskuntza-programazioaren ondoreetarako, lege horrek bermatuko du, edozein kasutan, ukitutako sektoreen partaidetza egokia.

**35. artikulua**

Botere publikoek ezarri ahal izango dituzte, eurei dagozkien eskumenak egikaritzean, aurreko artikuluak aipatu lurralde-esparruez besteko eskola-kontseiluak. Halaber, botere publikoek eman ahal izango dituzte eskola-kontseilu horien antolaketa eta jardunbiderako beharrezko xedapenak.

Edozein kasutan ere, bermatu beharko da ukitutako sektoreen partaidetza egokia kasuan kasuko kontseiluetan.

**III. TITULUA ZENTRO PUBLIKOETAKO GOBERNU-ORGANOAK**

Indargabetuta, Irakaskuntza Zentroetako Partaidetza, Ebaluazio eta Gobernuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 278. zk., azaroaren 21ekoa).

**IV. TITULUA ITUNPEKO ZENTROAK**

**47. artikulua**

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**48. artikulua**

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**49. artikulua**

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**50. artikulua**

Itunpeko zentroak irakaskuntzako ongintza-fundazioekin berdinetsitakotzat hartuko dira, itunpeko zentroei ere erakunde horiei aitortu zaizkien onurak aplikatzeko, fiskalak nahiz bestelakoak. Horrek ez die kalterik egingo itunpeko zentroek euren hezkuntza-jardueraren arabera izan ditzaketen bestelako onurei.

**51. artikulua**

1. Titulu honetan ezarritako itunen araubidearen ondorioz, zentroetako titularrek betebeharra dute, euren zentroetako irakaskuntzak doan eskaintzeko.

2. Itunpeko zentroetan, eskola-jarduera osagarriek

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

escolares complementarias y las extraescolares y los servicios escolares no podrán tener carácter lucrativo.

eta eskolaz kanpoko jarduerek nahiz eskola-zerbitzuek ezin izango dute irabazteko asmorik izan.

El cobro de cualquier cantidad a los alumnos en concepto de actividades escolares complementarias deberá ser autorizado por la Administración educativa correspondiente.

Kasuan kasuko hezkuntza-administrazioak baimendu beharko du eskola-jarduera osagarriengatik ikasleei kopururen bat kobratzea.

3. En los centros concertados, las actividades extraescolares, así como las correspondientes cuotas que deban aportar los usuarios, deberán ser aprobadas por el Consejo Escolar del centro y comunicadas a la Administración educativa correspondiente.

3. Itunpeko zentroetan, zentroko eskola- kontseiluak onetsiko ditu eskolaz kanpoko jarduerak, bai eta erabiltzaileek ordaindu beharreko kasuan kasuko kuotak ere; horrez gain, eskola-kontseiluak kasuan kasuko hezkuntza-administraziori komunikatuko dizkio horiek.

Estas actividades no podrán formar parte del horario escolar del centro.

Jarduera horiek ezin izango dira bildu zentroaren eskola-ordutegira.

Las Administraciones educativas establecerán el procedimiento de aprobación de los servicios escolares que presten los centros y de sus correspondientes cuotas.

Hezkuntza-administrazioek prozedura ezarriko dute, zentroek eskaintzen dituzten eskola-zerbitzuak eta horien ondoriozko kuotak onesteko.

El cobro de ambos tipos de actividades podrá contribuir al mantenimiento y mejora de las instalaciones.

Jarduera horiek kobratzea lagungarri gertatu ahal izango da instalazioak mantendu eta hobetzeko.

4. Las Administraciones educativas regularán las actividades escolares complementarias extraescolares y los servicios escolares de los centros concertados, que en todo caso tendrán carácter voluntario.

4. Hezkuntza-administrazioek arautuko dituzte itunpeko zentroetako eskolaz kanpoko eskola-jarduera osagarriak eta eskola-zerbitzuak. Edonola ere, halakoek borondatezko izaera edukiko dute.

**Artículo 52**

**52. artikulua**

1. Los centros concertados tendrán derecho a definir su carácter propio de acuerdo con lo establecido en el artículo 22 de esta Ley.

1. Itunpeko zentroek eskubidea izango dute, euren izaera propioa definitzeko, lege honen 22. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. En todo caso, la enseñanza deberá ser impartida con pleno respeto a la libertad de conciencia.

2. Edozein kasutan ere, irakaskuntza eskaini beharko da kontzientzia-askatasuna erabat errespetatuta.

3. Toda práctica confesional tendrá carácter voluntario.

3. Eginera konfesional orok borondatezko izaera izango du.

**Artículo 53**

**53. artikulua**

Derogado, por la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación (BOE, núm. 307, 24 de diciembre).

Indargabetuta, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ondorioz (EAO, 307. zk., abenduaren 24koa).

**Artículo 54**

**54. artikulua**

1. Los centros concertados tendrán, al menos, los siguientes órganos de gobierno:

a) Director.

b) Consejo Escolar.

c) Claustro de Profesores.

1. Itunpeko zentroek, gutxienez, ondoko gobernu-organoak izango dituzte:

a) Zuzendaria.

b) Eskola-kontseilua.

c) Irakasleen klaustroa.

2. Las facultades del director serán:

2. Zuzendariaren ahalmenak izango dira:

a) Dirigir y coordinar todas las actividades educativas del centro, de acuerdo con las disposiciones vigentes, sin perjuicio de las funciones del Consejo Escolar del centro.

a) Zentroko jarduera guztiak zuzendu eta koordinatzea, indarreko xedapenekin bat etorriz, zentroko eskola-kontseiluaren eginkizunak gorabehera.

b) Ejercer la jefatura del personal docente.

b) Irakasleen buru izatea.

c) Convocar y presidir los actos académicos y las reuniones de todos los órganos colegiados del centro.

c) Ekitaldi akademikoak eta zentroko kide anitzeko organo guztien bilerak deitzea eta zuzentzea.

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

d) Visar las certificaciones y documentos académicos del centro.

d) Zentroko ziurtagiri eta agiri akademikoak ikus-onestea.

e) Ejecutar los acuerdos de los órganos colegiados en el ámbito de sus facultades.

e) Kide anitzeko organoen erabakiak betearaztea bere ahalmenen esparruan.

f) Resolver los asuntos de carácter grave planteados en el centro en materia de disciplina de alumnos.

f) Ikasleen diziplinari dagokionez zentroan sortutako arazo larriak ebaztea.

g) Cuantas otras facultades le atribuya el Reglamento de régimen interior en el ámbito académico.

g) Barne-araudiak berari esparru akademikoan eratxiki dizkion beste ahalmen guztiak.

3. Los demás órganos de gobierno, tanto unipersonales como colegiados, se determinarán, en su caso, en el citado reglamento de régimen interior.

3. Barne-araudian ezarriko dira, hala denean, gainerako gobernu-organoak, pertsona bakarrekoak nahiz kide anitzekoak.

4. Las Administraciones educativas podrán disponer que los centros concertados con más de un nivel o etapa financiado con fondos públicos tengan un único Director, Consejo Escolar y Claustro de profesores para todo el centro.

4. Hezkuntza-administrazioek xedatu ahal izango dute itunpeko zentroek zuzendari, eskola-kontseilu eta irakasleen klaustro bakarra izatea zentro osorako, baldin eta zentro horiek diru publikoekin finantzatutako maila edo etapa bat baino gehiago badute.

**Artículo 55**

**55. artikulua**

Los profesores, los padres de los alumnos y, en su caso, los alumnos, intervendrán en el control y gestión de los centros concertados a través del consejo escolar del centro, sin perjuicio de que en sus respectivos reglamentos de régimen interior se prevean otros órganos para la participación de la comunidad escolar.

Irakasleek, ikasleen gurasoek, eta, hala denean, ikasleek ere esku hartuko dute itunpeko zentroen kontrol eta kudeaketan, zentroko eskola-kontseiluaren bidez. Hala ere, eskola-erkidegoaren partaidetzarako beste organo batzuk ezar daitezke zentroen kasuan kasuko barne- araudietan.

**Artículo 56**

**56. artikulua**

1. El Consejo Escolar de los centros privados concertados estará constituido por:

1. Itunpeko zentro pribatuetan eskola- kontseiluaren kide izango dira:

El Director.

Zuzendaria.

Tres representantes del titular del centro.

Zentroko titularraren hiru ordezkari.

Un concejal o representante del Ayuntamiento en cuyo término municipal se halle radicado el centro.

Zentroa zein udalerritan egon eta udal horretako zinegotzi edo ordezkari bat.

Cuatro representantes de los profesores.

Irakasleen lau ordezkari.

Cuatro representantes de los padres o tutores de los alumnos, elegidos por y entre ellos.

Ikasleen guraso edo tutoreen lau ordezkari, eurek euren artean aukeratutakoak.

Dos representantes de los alumnos elegidos por y entre ellos, a partir del primer curso de la Educación Secundaria Obligatoria.

Ikasleen bi ordezkari, eurek euren artean aukeratutakoak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailatik aurrera.

Un representante del personal de administración y servicios.

Administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

Una vez constituido el Consejo Escolar del centro, éste designará una persona que impulse medidas educativas que fomenten la igualdad real y efectiva entre hombres y mujeres.

Behin zentroko eskola-kontseilua eratuta, eskola-kontseiluak pertsona zehatza izendatuko du, horrek hezkuntza- neurriak bultza ditzan, gizonen eta emakumeen artean berdintasun benetako eta eragingarria suspertzeko.

Además, en los centros específicos de educación especial y en aquellos que tengan aulas especializadas, formará parte también del Consejo Escolar un representante del personal de atención educativa complementaria.

Gainera, hezkuntza bereziko zentroetan eta gela espezializatuak dituztenetan, eskola-kontseiluko kide izango da, berebat, hezkuntza-laguntza osagarriko langileen ordezkari bat.

Uno de los representantes de los padres en el Consejo Escolar será designado por la asociación de padres más representativa en el centro.

Zentroan ordezkaritza handiena duen guraso-elkarteak izendatuko du gurasoek eskola-kontseiluan izan behar dituzten ordezkarietatik bat.

Asimismo, los centros concertados que impartan

Era berean, lanbide-heziketa irakasten duten



© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

Formación Profesional podrán incorporar a su Consejo Escolar un representante del mundo de la empresa, designado por las organizaciones empresariales, de acuerdo con el procedimiento que las Administraciones educativas establezcan.

itunpeko zentroek euren eskola- kontseiluari gehitu ahal izango diote enpresa-arloko ordezkari bat; enpresaburuen erakundeek izendatuko dute ordezkari hori, hezkuntza-administrazioek ezarritako prozedurarekin bat etorriz.

2. A las deliberaciones del consejo escolar del centro podrán asistir, con voz pero sin voto, siempre que sean convocados para informar sobre cuestiones de su competencia, los demás órganos unipersonales de acuerdo con lo que establezca el reglamento de régimen interior.

2. Zentroko eskola-kontseiluaren eztabaidetara joan ahal izango dira pertsona bakarreko gainerako organoak, hitz egiteko aukerarekin baina botorik gabe, baldin eta organo horiek deitzen badira euren eskumeneko gaiei buruz informazioa emateko; organo horiek deitu beharko dira barne-araudiak ezarritakoaren arabera.

3. El Consejo Escolar del centro se renovará por mitades cada dos años, sin perjuicio de que se cubran hasta dicho término las vacantes que se produzcan.

3. Zentroko eskola-kontseiluaren erdia bi urtero berriztatuko da, bi urte horiek igaro aurretik gerta daitezkeen hutsuneak betetzeari kalterik egin gabe.

Las Administraciones educativas regularán el procedimiento de renovación parcial, que se realizará de modo equilibrado entre los distintos sectores de la comunidad educativa que lo integran.

Hezkuntza-administrazioek arautuko dute berriztatze partzialaren prozedura. Berriztatze partziala modu orekatsuan egingo da, hezkuntza-erkidegoko eskola-kontseilua osatzen duten sektore desberdinak kontuan hartuta.

Asimismo, regularán el procedimiento transitorio para la primera renovación parcial, una vez constituido el Consejo Escolar de acuerdo con lo dispuesto en la presente Ley.

Orobat, hezkuntza-administrazioek arautuko dute lehenengo berriztatze partzialaren prozedura iragankorra, behin eskola- -kontseilua eratuta, lege honetan xedatutakoarekin bat etorriz.

**Artículo 57**

**57. artikulua**

Corresponde al consejo escolar del centro, en el marco de los principios establecidos en esta ley:

Zentroko eskola-kontseiluari dagokio, lege honetan ezarritako printzipioen esparruan:

a) Intervenir en la designación y cese del director del centro, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 59.

a) Zentroko zuzendaria izendatu edo kendu behar denean parte hartzea, 59. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

b) Intervenir en la selección y despido del profesorado del centro, conforme con el artículo 60.

b) Zentroko irakasleak hautatu edo kaleratu behar direnean parte hartzea, 60. artikuluarekin bat etorriz.

c) Participar en el proceso de admisión de alumnos, garantizando la sujeción a las normas sobre el mismo.

c) Ikasleak onartzeko prozesuan parte hartzea, horren inguruko arauak betetzen direla bermatuz.

d) Conocer la resolución de conflictos disciplinarios y velar porque se atengan a la normativa vigente.

d) Diziplinako gatazkei buruzko ebazpenaren berri izatea eta gatazka horiek indarreko arautegiarekin bat etorriz bideratuko direla zaintzea.

Cuando las medidas disciplinarias adoptadas por el director correspondan a conductas del alumnado que perjudiquen gravemente la convivencia del centro, el Consejo Escolar, a instancia de padres o tutores, podrá revisar la decisión adoptada y proponer, en su caso, las medidas oportunas.

Zuzendariak hartutako diziplina-neurriak ikasleen jokabideei buruzkoak izan, eta jokabide horiek zentroko elkarbizitzari modu larrian kalte egiten diotenean, eskola-kontseiluak, gurasoek edo tutoreek hala eskatuta, zuzendariak hartutako erabakia berrikusi ahal izango du, eta, hala denean, neurri egokiak proposatu ahal izango ditu.

e) Aprobar, a propuesta del titular, el presupuesto del centro en lo que se refiere tanto a los fondos provenientes de la Administración como a las cantidades autorizadas, así como la rendición anual de cuentas.

e) Titularrak hala proposatuta, zentroko aurrekontua onestea, Administraziotik etorritako funtsei nahiz baimendutako kopuruei dagokienez, bai eta urteko kontu-ematea onestea ere.

f) Aprobar y evaluar la programación general del centro que con carácter anual elabora el equipo directivo.

f) Urtero zuzendaritza-taldeak zentroari buruz egiten duen programazio orokorra onetsi eta ebaluatzea.

g) Proponer, en su caso, a la Administración la autorización para establecer percepciones a los padres de los alumnos por la realización de

g) Administrazioari proposamena egitea, hala denean, horrek baimena eman dezan, ikasleen gurasoei hartukizunak ezartzeko, eskola-jarduera

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

actividades escolares complementarias.

h) Participar en la aplicación de la línea pedagógica global del centro y elaborar las directrices para la programación y desarrollo de las actividades escolares complementarias, actividades extraescolares y servicios escolares, así como intervenir, en su caso, en relación con los servicios escolares, de acuerdo con lo establecido por las Administraciones educativas.

i) Aprobar, en su caso, a propuesta del titular, las aportaciones de los padres de los alumnos para la realización de actividades extraescolares y los servicios escolares cuando así lo hayan determinado las Administraciones educativas.

j) Establecer los criterios sobre la participación del centro en actividades culturales, deportivas y recreativas, así como en aquellas acciones asistenciales a las que el centro pudiera prestar su colaboración.

k) Establecer relaciones de colaboración con otros centros, con fines culturales y educativos.

l) Aprobar, a propuesta del titular, el reglamento de régimen interior del centro.

ll) Supervisar la marcha general del centro en los aspectos administrativos y docentes.

m) Proponer medidas e iniciativas que favorezcan la convivencia en el centro, la igualdad entre hombres y mujeres y la resolución pacífica de conflictos en todos los ámbitos de la vida personal, familiar y social.

**Artículo 58**

Los alumnos participarán en las deliberaciones y decisiones del Consejo Escolar del centro.

**Artículo 59**

1. El Director de los centros concertados será designado previo acuerdo entre el titular y el Consejo Escolar.

El acuerdo del Consejo Escolar del centro será adoptado por mayoría absoluta de sus miembros.

2. En caso de desacuerdo, el Director será designado por el Consejo Escolar del centro de entre una terna de Profesores propuesta por el titular.

El acuerdo del Consejo Escolar del centro será adoptado por mayoría absoluta de sus miembros.

3. El mandato del Director tendrá una duración de tres años.

4. El cese del Director requerirá el acuerdo entre la titularidad y el Consejo Escolar del centro.

**Artículo 60**

1. Las vacantes del personal docente que se produzcan en los centros concertados se anunciarán públicamente.

2. A efectos de su provisión, el Consejo Escolar del centro, de acuerdo con el titular, establecerá los criterios de selección, que atenderán básicamente a los principios de mérito y capacidad.

osagarriak gauzatzeagatik.

h) Zentroaren pedagogia-lerro orokorraren aplikazioan parte hartzea, eta jarraibideak prestatzea eskola-jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola-zerbitzuak programatu eta garatzeko; orobat, hala denean, eskola-zerbitzuetan esku hartzea, hezkuntza- -administrazioek ezarritakoarekin bat etorriz.

i) Titularrak hala proposatuta, ikasleen gurasoek eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola-zerbitzuak gauzatzeko egindako ekarpenak onestea, hezkuntza- administrazioek hala erabaki dutenean.

j) Irizpideak ezartzea, zentroak kultura-, kirol- eta jolas-jardueretan parte hartzeko; halaber, irizpideak ezartzea zentroak elkarlanean aritzeko aukera zein laguntza-ekintzari begira izan eta laguntza-ekintza horretan parte hartzeko.

k) Beste zentro batzuekin elkarlan- -harremanak ezartzea, kultura- eta hezkuntza- xedeetarako.

l) Titularrak hala proposatuta, zentroaren barne-araudia onestea.

ll) Zentroaren jardunbide orokorra gainbegiratzea, administrazio- eta irakaskuntza- arloetan.

m) Neurriak eta ekimenak proposatzea, horiek ahalbidetzen badute zentroan elkarbizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, eta norberaren, familiaren eta gizartearen esparru guztietan gatazkak bake bidez konpontzea.

**58. artikulua**

Ikasleek parte hartuko dute zentroaren eskola-kontseiluko eztabaida eta erabakietan.

**59. artikulua**

1. Itunpeko zentroetako zuzendaria izendatuko da titularra eta eskola-kontseilua aurretiaz ados jarrita.

Zentroko eskola-kontseiluak erabakia hartuko du bere kideen erabateko gehiengoarekin.

2. Horiek ados jartzen ez badira, zentroko eskola-kontseiluak izendatuko du zuzendaria, titularrak proposatutako hiru irakasleen artean.

Zentroko eskola-kontseiluaren erabakia hartuko da beraren kideen erabateko gehiengoarekin.

3. Zuzendariaren agintaldiak hiru urte iraungo du.

4. Zuzendaria kentzeko, zentroko titularraren eta eskola-kontseiluaren arteko adostasuna beharko da.

**60. artikulua**

1. Itunpeko zentroetan irakasle-kopuruan egon daitezkeen hutsuneak jendaurrean iragarriko dira.

2. Hutsune horiek betetzeko, zentroko eskola-kontseiluak hautatze-irizpideak ezarriko ditu, titularrarekin hala adostuta; irizpide horien oinarri izango dira merezimendu- eta gaitasun-printzipioak.

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

3. El titular del centro junto con el Director procederá a la selección del personal, de acuerdo con los criterios de selección que tenga establecidos el Consejo Escolar del centro.

4. El titular del centro dará cuenta al Consejo Escolar del mismo de la provisión de profesores que efectúe.

5. El despido de profesores de centros concertados requerirá que se pronuncie previamente el Consejo Escolar del centro mediante acuerdo motivado adoptado por la mayoría absoluta de sus miembros.

En caso de que dicho acuerdo sea desfavorable, se reunirá inmediatamente la Comisión de conciliación a que hacen referencia los apartados 1 y 2 del artículo siguiente.

6. La Administración educativa competente verificará que los procedimientos de selección y despido del profesorado se realicen de acuerdo con lo dispuesto en los apartados anteriores y podrá desarrollar las condiciones de aplicación de estos procedimientos.

3. Zentroko titularrak zuzendariarekin batera hautatuko ditu irakasleak, zentroko eskola-kontseiluak ezarritako hautatze-printzipioekin bat etorriz.

4. Hautatutako irakasleen berri emango dio zentroko titularrak eskola-kontseiluari.

5. Itunpeko zentroetako irakasleak kalera daitezen, zentroko eskola-kontseiluak aurretiaz eman beharko du bere iritzia, bere kideen erabateko gehiengoak hartutako erabaki ziodunaren bidez.

Eskola-kontseiluaren erabakia ez bada irakasleak kaleratzearen aldekoa, berehala bilduko da hurrengo artikuluko 1 eta 2. paragrafoek aipatu adiskidetze-batzordea.

6. Hezkuntza-administrazio eskudunak egiaztatuko du irakasleak hautatu eta kaleratzeko prozedurak gauzatzea, aurreko paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorriz. Halaber, hezkuntza-administrazio eskudunak garatu ahal izango ditu prozedura horiek aplikatzeko baldintzak.

**Artículo 61**

1. En caso de conflicto entre el titular y el Consejo Escolar del centro o incumplimiento de las obligaciones derivadas del régimen de concierto, se constituirá una Comisión de conciliación que podrá acordar por unanimidad la adopción de las medidas necesarias, dentro del marco legal, para solucionar el conflicto o corregir la infracción cometida por el centro concertado.

2. La Comisión de conciliación estará compuesta por un representante de la Administración educativa competente, el titular del centro o persona en quien delegue y un representante del Consejo Escolar elegido por mayoría absoluta de sus componentes entre profesores o padres de alumnos que tengan la condición de miembros del mismo.

3. Las Administraciones educativas regularán el procedimiento al que deben someterse las comisiones de conciliación.

4. El incumplimiento del acuerdo de la Comisión de conciliación supondrá un incumplimiento grave del concierto educativo.

5. En el supuesto que la Comisión no llegue al acuerdo citado, la Administración educativa, vista el acta en que aquélla exponga las razones de su discrepancia, decidirá la instrucción del oportuno expediente en orden a la determinación de las responsabilidades en que hubieran podido incurrir las partes en litigio, adoptando, en su caso, las medidas provisionales que aconseje el normal desarrollo de la vida del centro.

6. Con ocasión de solicitud de autorización de cese de actividades, las Administraciones educativas correspondientes podrán imponer el cese progresivo de actividades a los centros que estén concertados o que lo hubieran estado en los dos años inmediatamente anteriores a la formulación de dicha

**61. artikulua**

1. Zentroko titularraren eta eskola- -kontseiluaren artean gatazka badago, edo itunaren araubideak eratorritako betebeharrak betetzen ez badira, adiskidetze- batzordea eratuko da. Adiskidetze-batzordeak aho batez erabaki ahal izango du, legearen esparruan, beharrezko neurriak hartzea, gatazka konpontzeko edo itunpeko zentroak egindako arau- -haustea zuzentzeko.

2. Adiskidetze-batzordea osatuko dute hezkuntza-administrazio eskuduneko ordezkari batek, zentroko titularrak edo horren eskuordeak, eta eskola-kontseiluko ordezkari batek. Eskola-kontseiluko kideek hautatuko dute eskola-kontseiluko ordezkaria erabateko gehiengoarekin, kide horien artean dauden irakasleen edo ikasleen gurasoen artean.

3. Hezkuntza-administrazioek arautuko dute adiskidetze-batzordeek bete beharreko prozedura.

4. Adiskidetze-batzordearen erabakia ez betetzeak berarekin ekarriko du hezkuntza-itunaren ez-betetze larria.

5. Batzordeak ez badu adostasunik lortzen, hezkuntza-administrazioak kasuan kasuko espedientea hastea erabakiko du, batzordeak zein aktatan jaso desadostasunaren arrazoiak eta akta hori ikusi ondoren. Hezkuntza-administrazioak espedientea hasiko du, auzipeko alderdiek izan ditzaketen erantzukizunak zehazteko. Gainera, hezkuntza-administrazioak har ditzake, hala denean, zentroaren ohiko jardunbideak behar dituen behin-behineko neurriak.

6. Jarduerei uzteko baimena eskatzen denean, kasuan kasuko hezkuntza- -administrazioek jarduerak arian-arian uztea ezarri ahal izango diete itunpeko zentroei, edo eskabide hori egin aurreko bi urteetan itunpekoak izan ziren zentroei, baldin eta kasuan kasuko espedientean egiaztatzen bada

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

solicitud, si se acreditan en el expediente correspondiente necesidades de escolarización en la zona de influencia del centro.

eskolatze- -beharrizanak daudela zentroaren eragin-gunean.

7. La Administración educativa no podrá adoptar en ningún caso medidas que supongan su subrogación en las facultades respectivas del titular o del Consejo Escolar del centro.

7. Hezkuntza-administrazioak ezin izango ditu inola ere hartu zentroko titularraren edo eskola-kontseiluaren ahalmenetan subrogazioa dakarten neurriak.

**Artículo 62**

**62. artikulua**

1. Son causa de incumplimiento leve del concierto por parte del titular del centro las siguientes:

1. Itunari dagokionez, ondokoak dira zentroko titularrak ez-betetze arina egiteko arrazoiak:

a) Percibir cantidades por actividades escolares complementarias o extraescolares o por servicios escolares que no hayan sido autorizadas por la Administración educativa o por el Consejo Escolar del centro, de acuerdo con lo que haya sido establecido en cada caso.

a) Diru-kopuruak jasotzea, hezkuntza-administrazioak edo zentroko eskola- kontseiluak baimendu gabeko eskola-jarduera osagarriengatik edo eskolaz kanpoko jarduerengatik nahiz eskola-zerbitzuengatik, kasuan-kasuan ezarritakoarekin bat etorriz.

b) Infringir las normas sobre participación previstas en el presente título.

b) Titulu honetan partaidetzari buruz ezarritako arauak haustea.

c) Proceder a despidos del profesorado cuando aquéllos hayan sido declarados improcedentes por sentencia de la jurisdicción competente.

c) Irakasleak kaleratzea, jurisdikzio eskudunaren epaiak adierazten duenean kaleratze horiek bidegabekoak direla.

d) Infringir la obligación de facilitar a la Administración los datos necesarios para el pago delegado de los salarios.

d) Administrazioari datuak emateko betebeharra haustea, datu horiek beharrezkoak direnean alokairuak eskuordetuta ordaintzeko.

e) Infringir el principio de voluntariedad y no discriminación de las actividades complementarias, extraescolares y servicios complementarios.

e) Borondatezkotasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa haustea, jarduera osagarrien, eskolaz kanpoko jardueren eta zerbitzu osagarrien inguruan.

f) Cualesquiera otros que se deriven de la violación de las obligaciones establecidas en el presente título, o en las normas reglamentarias a las que hacen referencia los apartados 3 y 4 del artículo 116 de la Ley Orgánica de Educación o de cualquier otro pacto que figure en el documento de concierto que el centro haya suscrito.

f) Dela titulu honetako betebeharrak, dela Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 116. artikuluko 3 eta 4. paragrafoek aipatu erregelamenduetako betebeharrak, dela zentroak sinatu itun- -agirira bildutako hizpaketatik edozein, urratu eta urratze horretatik etor daitezkeen osterantzekoak.

2. Son causas de incumplimiento grave del concierto por parte del titular del centro las siguientes:

2. Itunari dagokionez, ondokoak dira zentroko titularrak ez-betetze larria egiteko arrazoiak:

a) Las causas enumeradas en el apartado anterior cuando del expediente administrativo instruido al efecto y, en su caso, de sentencia de la jurisdicción competente, resulte que el incumplimiento se produjo por ánimo de lucro, con intencionalidad evidente, con perturbación manifiesta en la prestación del servicio de la enseñanza o de forma reiterada o reincidente.

a) Aurreko paragrafoan zerrendatutako arrazoiak, noiz eta hasitako administrazio- espedienteak eta, hala denean, jurisdikzio eskudunaren epaiak ondorioztatzen duenean, ez-betetzea gertatu zela irabazteko asmoarengatik, asmo argiarekin, irakaskuntza-zerbitzua ematean nahasmendu nabaria izateagatik, edo ez-betetzea behin eta berriro egiteagatik, edo ez-betetzea egiten den lehenengo aldia ez izateagatik.

b) Impartir las enseñanzas objeto del concierto contraviniendo el principio de gratuidad.

b) Itundutako irakasgaiak eskaintzea doakotasun-printzipioa bete gabe.

c) Infringir las normas sobre admisión de alumnos.

c) Ikasleak onartzeari buruzko arauak haustea.

d) Separarse del procedimiento de selección y despido del profesorado establecido en los artículos precedentes.

d) Aurreko artikuluetan irakasleak hautatu zein kaleratzeko ezarri prozedura alde batera uztea.

e) Lesionar los derechos reconocidos en los artículos 16 y 20 de la Constitución, cuando así se determine por sentencia de la Comisión de Conciliación.

e) Konstituzioaren 16 eta 20. artikuluetan aitortutako eskubideak urratzea, adiskidetze-batzordearen epaiak hori ezartzen duenean.

g) Cualesquiera otros definidos como incumplimientos graves en el presente título o en las

g) Titulu honetan edo Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 116. artikuluko 3 eta 4. paragrafoek

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

normas reglamentarias a que hacen referencia los apartados 3 y 4 del artículo 116 de la Ley Orgánica de Educación.

No obstante lo anterior, cuando del expediente administrativo instruido al efecto resulte que el incumplimiento se produjo sin ánimo de lucro, sin intencionalidad evidente y sin perturbación en la prestación de la enseñanza y que no existe reiteración ni reincidencia en el incumplimiento, éste será calificado de leve.

3. La reiteración de incumplimientos a los que se refieren los apartados anteriores se constatará por la Administración educativa competente con arreglo a los siguientes criterios:

a) Cuando se trate de la reiteración de los incumplimientos cometidos con anterioridad, bastará con que esta situación se ponga de manifiesto mediante informe de la inspección educativa correspondiente.

b) Cuando se trate de un nuevo incumplimiento de tipificación distinta al cometido con anterioridad, será necesaria la instrucción del correspondiente expediente administrativo.

4. El incumplimiento leve del concierto dará lugar:

a) Apercibimiento por parte de la Administración educativa.

b) Si el titular no subsanase el incumplimiento leve, la administración impondrá una multa de entre la mitad y el total del importe de la partida «otros gastos» del módulo económico de concierto educativo vigente en el período en que se determine la imposición de la multa.

La Administración educativa sancionadora determinará el importe de la multa, dentro de los límites establecidos y podrá proceder al cobro de la misma por vía de compensación contra las cantidades que deba abonar al titular del centro en aplicación del concierto educativo.

5. El incumplimiento grave del concierto educativo dará lugar a la imposición de multa, que estará comprendida entre el total y el doble del importe de la partida «otros gastos» del módulo económico de concierto educativo vigente en el período en el que se determine la imposición de la multa.

La Administración educativa sancionadora determinará el importe de la multa, dentro de los límites establecidos y podrá proceder al cobro de la misma por vía de compensación contra las cantidades que deba abonar al titular del centro en aplicación del concierto educativo.

6. El incumplimiento muy grave del concierto dará lugar a la rescisión del concierto.

En este caso, con el fin de no perjudicar a los alumnos ya escolarizados en el centro, las Administraciones educativas podrán imponer la

aipatu erregelamenduetan ez-betetze larri gisa hartutako enparauak.

Aurrekoa gorabehera, ez-betetzea arintzat joko da, noiz eta hasitako administrazio- espedienteak ondorioztatzen duenean, ez-betetzea gertatu zela irabazteko asmorik gabe, asmo argirik gabe eta irakaskuntza-zerbitzua ematean nahasmendurik sortu gabe, eta ez- -betetzea ez dela behin eta berriro egin, edo ez dela berriz egin.

3. Hezkuntza-administrazio eskudunak egiaztatuko du, aurreko paragrafoetako ez-betetzeak behin eta berriro egiten direla, hurrengo irizpideak kontuan hartuta:

a) Aurretiaz egindako ez-betetzeak berriro egiten direnean, nahikoa izango da egoera horren berri ematea, kasuan kasuko hezkuntza-ikuskatzailetzaren txostenaren bidez.

b) Beste ez-betetze bat egiten denean, aurretiaz egindako ez-betetzearen tipifikazioarekin bat ez datorrena, kasuan kasuko administrazio-espedientea hasi beharko da.

4. Itunaren ez-betetze arinak berarekin ekarriko du:

a) Hezkuntza-administrazioak ohartarazpena egitea.

b) Titularrak ez badu ongitzen ez- -betetze arina, Administrazioak isuna ezarriko du; isun hori izango da «beste gastu batzuk» partidako zenbatekoaren erdia eta osoa bitartekoa. Halaber, partida hori izan beharko da isuna zein epealditan ezarri eta epealdi horretan indarrean dagoen hezkuntza-itunaren ekonomia-moduluaren araberakoa.

Hezkuntza-administrazio zehatzaileak finkatuko du isunaren zenbatekoa, kasuan- kasuan ezarritako mugen barruan. Orobat, hezkuntza-administrazio horrek isuna kobratu ahal izango du, hezkuntza-ituna aplikatzeagatik zentroko titularrari ordaindu beharreko zenbatekoak konpentsatuta.

5. Hezkuntza-itunaren ez-betetze larriak berarekin ekarriko du isuna ezartzea. Isun horren zenbatekoa izango da «beste gastu batzuk» partidako zenbatekoaren osoa eta bikoitza bitartekoa. Halaber, partida hori izan beharko da isuna zein epealditan ezarri eta epealdi horretan indarrean dagoen hezkuntza-itunaren ekonomia-moduluaren araberakoa.

Hezkuntza-administrazio zehatzaileak finkatuko du isunaren zenbatekoa, kasuan-kasuan ezarritako mugen barruan. Orobat, hezkuntza-administrazio horrek isuna kobratu ahal izango du, hezkuntza-ituna aplikatzeagatik zentroko titularrari ordaindu beharreko zenbatekoak konpentsatuta.

6. Itunaren ez-betetze oso larriak berarekin ekarriko du ituna hutsaltzea.

Halakoetan, zentroan dagoeneko eskolatutako ikasleei kalterik ez eragiteko, hezkuntza-administrazioek ezarri ahal izango dute ituna arian-


© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

rescisión progresiva del concierto.

7. El incumplimiento y la sanción muy grave prescribirán a los tres años, el grave a los dos años y el leve al año.

El plazo de prescripción se interrumpirá con la constitución de la Comisión de Conciliación para la corrección del incumplimiento cometido por el centro concertado.

**Artículo 63**

1. En los supuestos de rescisión del concierto, la Administración educativa competente adoptará las medidas necesarias para escolarizar a aquellos alumnos que deseen continuar bajo régimen de enseñanza gratuita, sin que sufran interrupción en sus estudios.

2. Si la obligación incumplida hubiera consistido en la percepción indebida de cantidades, la rescisión del concierto supondrá para el titular la obligación de proceder a la devolución de las mismas en la forma que en las normas generales se establezcan.

**DISPOSICIONES ADICIONALES**

**Primera**

1. La presente Ley podrá ser desarrollada por las Comunidades Autónomas que tengan reconocida competencia para ello en sus respectivos Estatutos de Autonomía o, en su caso, en las correspondientes Leyes Orgánicas de transferencia de competencias.

Se exceptúan, no obstante, aquellas materias cuya regulación encomienda esta Ley al Gobierno.

2. En todo caso, y por su propia naturaleza, corresponde al Estado:

a) La ordenación general del sistema educativo.

b) La programación general de la enseñanza en los términos establecidos en el artículo 27 de la presente Ley.

c) La fijación de las enseñanzas mínimas y la regulación de las demás condiciones para la obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales, válidos en todo el territorio español.

d) La alta inspección y demás facultades que, conforme al artículo 149.1.30.ª de la Constitución, le corresponden para garantizar el cumplimiento de las obligaciones de los Poderes públicos.

**Segunda**

1. Las Corporaciones locales cooperarán con las Administraciones educativas competentes, en el marco de lo establecido por la legislación vigente y, en su caso, en los términos que se acuerden con ellas, en la creación, construcción y mantenimiento de los centros públicos docentes, así como en la vigilancia del cumplimiento de la escolaridad obligatoria.

2. La creación de centros docentes públicos, cuyos titulares sean las Corporaciones locales, se realizará por convenio entre éstas y la Administración

arian hutsaltzea.

7. Ez-betetze eta zehapen oso larriak hiru urtera preskribatuko dira, larriak bi urtera, eta arinak urtebetera.

Preskripzio- epea geldiarazi egingo da adiskidetze-batzordea eratzen denean, itunpeko zentroak gauzatutako ez-betetzea zuzentzeko.

**63. artikulua**

1. Ituna hutsaltzen bada, hezkuntza- -administrazio eskudunak beharrezko neurriak hartuko ditu, doako irakaskuntzaren araubideari eutsi nahi dioten ikasleak eskolatzeko, euren ikasketetan inolako geldiarazpenik izan gabe.

2. Bete gabeko betebeharra izan bada zenbateko batzuk bidegabe jasotzea, ituna hutsaltzeak eragingo du titularrak betebeharra izatea, zenbateko jakin horiek itzultzeko, arau orokorretan ezarri moduan.

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenengoa**

1. Lege hau garatu ahal izango dute autonomia-erkidegoek, baldin eta euren autonomia-estatutuetan, edo, hala denean, kasuan kasuko eskumen-transferentziei buruzko lege organikoetan aitortuta badute horretarako eskumena.

Hala ere, salbuetsita daude gai batzuk, lege honek gai horien arauketa Gobernuari eratxiki dion ginoan.

2. Edozein kasutan ere, eta euren izaera dela eta, estatuari dagokio:

a) Hezkuntza-sistemaren antolaketa orokorra.

b) Hezkuntzaren programazio orokorra, lege honen 27. artikuluak ezarritakoaren arabera.

c) Gutxieneko irakaskuntzak finkatzea, eta Espainiako lurralde osoan balio duten titulu akademikoak eta lanbide- tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko gainerako baldintzak arautzea.

d) Goi-ikuskatzailetza eta Konstituzioaren 149.1.30 artikuluaren arabera berari dagozkion gainerako ahalmenak, botere publikoek dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

**Bigarrena**

1. Toki-korporazioak hezkuntza-administrazio eskudunekin lankidetzan arituko dira, indarreko legeriak ezarritako esparruan, eta, hala denean, hezkuntza- administrazioekin adostutakoaren arabera, irakaskuntza-zentro publikoak sortu, eraiki eta mantentzeari dagokionez, bai eta derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzeari dagokionez ere.

2. Toki-korporazioen titulartasunpeko irakaskuntza-zentroak sortuko dira toki-korporazioen eta hezkuntza- -administrazio eskudunaren arteko

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

educativa competente, al objeto de su inclusión en la programación de la enseñanza a que se refiere el artículo 27.

Dichos centros se someterán, en todo caso, a lo establecido en el Título tercero de esta ley.

Las funciones que en el citado Título competen a la Administración educativa correspondiente, en relación con el nombramiento y cese del director y del equipo directivo, se entenderán referidas al titular público promotor.

hitzarmenaren bidez, irakaskuntza-zentro horiek bil daitezen 27. artikuluak aipatu irakaskuntzaren programaziora.

Zentro horiek beti egongo dira lege honen hirugarren tituluan ezarritakoaren mende.

Titulu horretan kasuan kasuko hezkuntza-administrazioak dituen eginkizunak, zuzendaria eta zuzendaritza- taldea izendatzeko eta kentzeko, titular publiko sustatzaileari dagozkiola ulertuko da.

**Tercera**

Los centros privados de niveles no obligatorios que en la fecha de promulgación de esta Ley estén sostenidos total o parcialmente con fondos públicos se ajustarán a lo establecido en la misma para los centros concertados.

A tal efecto se establecerán los correspondientes conciertos singulares.

**Hirugarrena**

Derrigorrezko mailetakoak ez diren zentro pribatuei lege hau aldarrikatzean diru publikoekin oso-osoan edo zati batean eusten bazaie, orduan zentro horiei aplikatuko zaie lege honetan itunpeko zentroei begira ezarritakoa.

Horretarako, kasuan kasuko itun bereziak egingo dira.

**Cuarta**

No será de aplicación lo previsto en el artículo 59 de la presente Ley a los titulares de centros actualmente autorizados, con menos de diez unidades, que, ostentando la doble condición de figurar inscritos en el registro de centros como personas físicas y ser directores de los mismos, se acojan al régimen de conciertos.

En tal caso, el director ocupará una de las plazas correspondientes a la representación del titular en la composición del consejo escolar del centro.

**Laugarrena**

Lege honen 59. artikuluan ezarritakoa ez zaie aplikatuko gaur egun baimenduta dauden zentroen titularrei, baldin eta zentro horiek hamar unitate baino gutxiago badituzte, titularra, zentroen erregistroan pertsona fisiko gisa inskribatuta egoteaz gain, zentro horien zuzendari bada, eta zentroak itunen araubidera biltzen badira.

Halakoetan, zentroko eskola-kontseiluaren osaeran titularrari dagozkion ordezkaritza- postuetatik bat zuzendariarena izango da.

**Quinta**

1. Los centros privados que impartan la educación básica y que se creen a partir de la entrada en vigor de la presente Ley, podrán acogerse al régimen de conciertos si lo solicitan al iniciarse el procedimiento de autorización administrativa y siempre que, de acuerdo con los principios de esta Ley, formalicen con la Administración un convenio en el que se especifiquen las condiciones para la constitución del consejo escolar del centro, la designación del director y la provisión del profesorado.

2. Los centros privados de nueva creación que, al iniciarse el procedimiento de autorización administrativa no hicieren uso de lo establecido en el apartado anterior, no podrán acogerse al régimen de conciertos hasta que hayan transcurrido cinco años desde la fecha de su autorización.

**Bosgarrena**

1. Lege hau indarrean jarri ondoren sortu eta oinarrizko hezkuntza irakasten duten zentro pribatuak itunen araubidera bildu ahal izango dira, baldin eta hori eskatzen badute administrazio- -baimenaren prozedura hastean. Gainera, zentro pribatu horiek hitzarmena egin beharko dute Administrazioarekin, lege honen printzipioekin bat etorriz; hitzarmen horretan, baldintzak zehaztuko dira, zentroko eskola-kontseilua eratzeko, zuzendaria izendatzeko eta irakasleak hartzeko.

2. Sortu berri diren zentro pribatuak ezin izango dira itunen araubidera bildu, zentro horiek baimendu zirenetik bost urte igaro arte, baldin eta administrazio- baimenaren prozedura hastean zentro horiek ez baziren baliatu aurreko paragrafoan ezarritakoaz.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**Primera**

Hasta tanto no se constituya el Consejo Escolar del Estado creado por la presente Ley, continuará ejerciendo sus funciones el Consejo Nacional de Educación.

**Segunda**

Hasta tanto no se desarrolle reglamentariamente el régimen de conciertos, se mantendrán las subvenciones a la enseñanza obligatoria.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa**

Lege honek sortutako Estatuaren Eskola Kontseilua eratu arte, Hezkuntzako Kontseilu Nazionalak bere eginkizunak gauzatzeari eutsiko dio.

**Bigarrena**

Itunen araubidea erregelamendu bidez garatu arte, derrigorrezko irakaskuntzaren diru-laguntzei eutsiko zaie.



© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

**Tercera**

1. Los centros privados actualmente subvencionados, que al entrar en vigor el régimen general de conciertos previstos en la presente ley, no puedan acogerse al mismo por insuficiencia de las consignaciones presupuestarias correspondientes, se incorporarán a dicho régimen en un plazo no superior a tres años.

2. Durante este período, el Gobierno establecerá para los citados centros un régimen singular de conciertos en el que se fijarán las cantidades que puedan percibir de los alumnos en concepto de financiación complementaria a la proveniente de fondos públicos, sin perjuicio de su sujeción a lo preceptuado en el Título Cuarto de esta Ley.

**Hirugarrena**

1. Lege honetan ezarri itunen araubide orokorra indarrean jartzen denean, gaur egun diru-laguntzak jasotzen dituzten zentro pribatuak ezin badira araubide horretara bildu, kasuan kasuko aurrekontu-esleipenak behar bestekoak ez izateagatik, zentro horiek hiru urteko epean bilduko dira araubide horretara.

2. Bien bitartean, Gobernuak itunen araubide berezia ezarriko du zentro horientzat; itun horietan ezarriko dira zentroek ikasleengandik jaso ditzaketen zenbatekoak, diru publikoetatik jasotzen dutenaren osagarri; edonola ere, lege honen laugarren tituluan ezarritakoa bete beharko da.

**Cuarta**

Los centros docentes actualmente en funcionamiento, cuyos titulares sean las Corporaciones locales, se adaptarán a lo prevenido en la presente Ley en el plazo de un año a contar desde su publicación.

**Laugarrena**

Gaur egun toki-korporazioen titulartasunpean diharduten hezkuntza- -zentroak lege honetan ezarritakora egokituko dira, urtebeteko epean lege hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

**Quinta**

En las materias cuya regulación remite la presente Ley a ulteriores disposiciones reglamentarias y en tanto éstas no sean dictadas serán de aplicación en cada caso las normas de este rango hasta ahora vigentes.

**Bosgarrena**

Lege honek gai batzuk igorri ditu gerogarreneko erregelamendu-xedapenetara; xedapen horiek eman arte aplikatuko dira kasuan-kasuan orain arte lerrun berarekin indarrean izan diren arauak.

**DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

1. Queda derogada la Ley Orgánica 5/1980, de 19 de junio, por la que se Regula el Estatuto de Centros Escolares.

2. De la Ley 14/1970, de 4 de agosto, General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa, quedan derogados:

a) El Título Preliminar, los Capítulos Primero y Tercero del Título Segundo, el Título Cuarto y el Capítulo Primero del Título Quinto.

b) Los artículos 60, 62, 89.2, 3 y 4, 92, 135, 138, 139, 140, 141.2 y 145.

c) Los artículos 59, 61, 89.6, 101 y 136.3 y 4 en cuanto se opongan a lo preceptuado en la presente Ley.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

1. Indarrik gabe geratuko da ekainaren 19ko 5/1980 Lege Organikoa, Eskola Zentroen Estatutua Arautzekoa.

2. Hezkuntzari eta Hezkuntzaren Eraldaketa Finantzatzeari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 Lege Orokorretik indarrik gabe geratuko dira:

a) Atariko titulua, bigarren tituluko lehenengo eta hirugarren kapituluak, laugarren titulua, eta bosgarren tituluko lehenengo kapitulua.

b) 60. artikulua, 62. artikulua, 89. artikuluko 2, 3 eta 4. paragrafoak, 92. artikulua, 135. artikulua, 138. artikulua, 139. artikulua, 140. artikulua, 141.2 artikulua eta 145. artikulua.

c) 59. artikulua, 61. artikulua, 89.6 artikulua, 101. artikulua, eta 136. artikuluko 3 eta 4. paragrafoak, lege honetan ezarritakoaren aurkakoak diren neurrian.

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera**

El Gobierno y las Comunidades Autónomas, en el ámbito de sus respectivas competencias, podrán dictar cuantas disposiciones sean precisas para la aplicación de la presente Ley.

**Segunda**

Se autoriza al Gobierno para adaptar lo dispuesto en esta Ley a las peculiaridades de los centros docentes de carácter singular que estén acogidos a convenios entre el Ministerio de Educación y Ciencia y otros

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa**

Gobernuak eta autonomia-erkidegoek, euren eskumenen esparruan, lege hau aplikatzeko behar beste xedapen eman ahal izango dituzte.

**Bigarrena**

Gobernuak baimena du, lege honetan xedatutakoa egokitzeko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta beste ministerio batzuen arteko hitzarmenetara bilduta dauden izaera bereziko irakaskuntza-

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

Ministerios, o cuyo carácter específico esté reconocido por acuerdos internacionales de carácter bilateral.

**Tercera**

La presente Ley entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado».

zentroen berezitasunetara, edo alde biko nazioarteko akordioen bidez izaera berezia aitortuta duten irakaskuntza- zentroen berezitasunetara.

**Hirugarrena**

Lege hau indarrean jarriko da «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunean bertan.

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:
F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola
eta Ester Urrutia Idoiaga
© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua